

EUSKARARI BURUZKO DISKURTSOAK

Egilea: Oier Artola Agirrezabal

Tutorea: Iñaki Martinez De Luna.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

AURKIBIDEA

1.- **LABURPENA**

2.- **HITZAURREA**

3.- **SARRERA**

4.- **HIPOTESIAK**

5.- **METODOLOGIA**

(galdera/erantzunak: banakako azterketa)

6.- **EMAITZAK**

7.- **EMAITZEN ONDORIO BATERATUAK**

8.- **ESKERRAK**

9.- **AZKEN HITZA**

10.- **BIBLIOGRAFIA**

1.- LABURPENA

Lan honen helburua Lasarte-oria eta Usurbilgo AEK euskaltegietako ikasleen inguruko diagnosi bat egitea izango da, euskara ikasterako orduan euskararekiko duten jarrera eta joerak identifikatzeko asmoz. Irakasle lanetan nabilen urteetan zehar ikasleengan zenbait aldaketa nabari izan ditut urtez-urte euskara ikasteko duten arrazoi edo motibazioaren inguruan, eta motibazio hoiek zeintzuk eta nolakoak diren aztertzea eta ahal bada identifikatzea izango da lan honen helburua.

Azken urteetan, eta batez ere Administrazio ezberdinek Hizkuntza Eskakizunak sartu zituztenetik euskararekiko jarrera aldatu egin delakoan nago; horrek ez du hori baino gehiago esan nahi, baina ezta gutxiago ere. Motibazio ideologiko, afektibo, sinboliko edo instrumentala izatea ez da gauza bera. Ikasle hauen motibazioa identifikatu eta horrek euskararekiko jarreran duen eragina aztertzen saiatuko naiz.

2.- HITZAURREA

Euskara irakasle lanetan dihardut Lasarte-oria eta Usurbilgo ikasguko AEK-ko zentroetan 2007az geroztik, eta ordutik gaur eguneraino ikasle profila poliki-poliki aldatuz joan dela iruditzen zait. Orain dela zazpi urte alfabetatze taldeak zeuden euskaltegian, eta baita euskaldun izanda ere beren euskara maila hobetu besterik nahi ez zuten ikasleak ere. 2007-ko ikastaro hartan, nire irakasle laneko lehen urtean bi talde egokitu zitzaizkidan, tipologia eta maila ezberdinekoak biak ere; bata hasiera mailako taldea zen, eta oro har euskarazko gutxienezko ezagutzak eskuratu nahi zituzten Lasarte-oriatarrek osatzen zuten taldea. Ogibidez mekanikari bat, masajista bat, dendari bat, komertzial bat, biologia graduondoko Mallorcako ikasle bat, karrozero bat eta harakin bat izan nituen ikasle. Bi ikasle izan ezik gainontzekoak Lasarte-

oriatarrak ziren, edo behintzat urte askoan herrian bertan bizi zen jendea zen, oro har herrian ezagunak zirenak.

Beste taldean alfabetatze ikasleak izan nituen. Gehiengoa euskaldun zaharra zen (bat izan ezik beste guztiak hala ziren) eta denetariko motibazioak zituztela azaldu zidaten euskaltegira hurbiltzeko: Gurutzek, Antoniok edo Gabik, azken hau euskaldun berria, ez zuten beraien euskara maila hobetu beste helbururik. Lan kontuetatik harago zihoan beren interesa eta hala erakutsi zuten euskaltegian eman zuten urte hartan: asistentzia bikaina izan zuten ia guztiek (gaur egun ez da ohikoa % 90-eko asistentzia maila izatea) eta klasetik kanpo ere ia denak euskaraz bizi zirela ohartu nintzen. Haserako urte hartan apenas pedagogiarik egin nuen euskara erabil zezaten, berez zerabilten euskara euskaltegitik kanpora ere, bai arlo pribatuan (etxean, seme-alabekin,) zein publikoan (dendetan, tabernan, lanean edo aisialdiko ekintza askotan).

2014. urte honetako Uztailean gauden honetan bukatu da jadanik 2013-2014 ikasturtea. Aurten eguneroko bi talde egokitu zaizkit, eta astean bi egunetako beste bat; goizeko taldea hasera mailako taldea izan da, Europako markoari jarraituz A1.2 mailako ikasleak, hain zuzen ere.

Arratsaldeko taldea berriz Europako markoko B2.2 mailako taldea izan da. Maila honetako taldearekin Usurbilen izan ditut eskolak eta teorian euskara hutsez mintzatzeko adinako maila izan behar da B2.2 maila eskuratu ahal izateko. Baina 2007an izan nuen alfabetatze taldeko ikasleen oso bestela, aurtengo ikasle hauek, Usurbilen bizi eta ia guztiak usurbildarrak izanda ere erdaraz mintzo ziren klasera bidean elkarrekin tertulian zetoze, eta eskolak amaitu eta etxerako bidea hartzean ere, euskaltegia atzean utzi bezain pronto erdarara pasatzen ziren. Egunen batean autora bidean elkarrekin joaten ginenetan ni euskeraz artatzen ninduten baina beraien artean erdara hutsean ziharduten, salbuespenen bat egonda ere.

2007an izan nuen alfabetatze taldean pentsaezina izango litzateke joera hori. Ikasle haiek euskaraz sartu eta euskaraz ateratzen ziren euskaltegitik.

Aurtengoek, eta iazkoek ere baietz esango nuke, bestelako joera bat erakutsi dute euskararen erabilerarekiko.

Niretzako berria den joera honen zergatia edo arrazoia aurkitzen saiatuko naiz lan honetan. Lan honen helburua halere ez da izango inongo estatistika emaitzarik eskaintzea, Lasarte-oria eta Usurbilgo 2014 urteko AEK euskaltegiko euskara ikasleen euskararekiko joera aztertzea baizik. Joera honen nondik norakoak, bilakaera eta motibazioak ulertzeko gai bagara zerbitzu hobea eskaintzeko moduan egongo da gure euskaltegia eta AEK-ren xedea euskara zabaltzea eta Euskal Herria euskaldun bat lortzeko pausoak ematea izaki, lan honen helburua ikasleen profil teoriko eguneratu bat eskuratzea izango da. Ezin baita ezer hobetu garaian garaiko egoera behar den bezala aztertu eta ulertu gabe.

3.-SARRERA

Euskararen inguruko diskurtsoa gizartea bera bezala etengabeko eraldaketa prozesu batean dago. Urrun geratu dira hizkuntzak eta gizarteak zurrinak eta mugitzeko zailtasun handiak zituzten elementuak uste zeneko garaiak. Euskararen kasuan asko dago oraindik ere ikertzeko eta ikasteko, azken urteetako gertakari politiko, ekonomiko, sozial eta kulturelek astinaldi ederra eman baitio euskal gizarteari; bide batez eta bestela izan ez daitekeen moduan, euskarari buruzko euskal gizartearen pertzepzio, pentsakera edota sententzioa ere aldatu egin direla argi ikus daiteke.

Azken urteetan euskarari buruzko ikerlan zorrotz eta oparoak egin dira, eta horiei esker euskararen erabilpena bultzatzeko plan bat baino gehiago jarri izan da martxan, bai Administrazio ezberdinetan eta baita hainbat empresa handi eta ertainetan ere. Plan hauen diseinurako elementu ezberdinak kontuan hartu eta kudeatu behar izan dira, esaterako eta labur-labur honako hauek: Planaren iraupen aldia, baliabide ekonomikoen zenbatekoa, hartzailearen euskararekiko jarrera, aplikazio espazio eremua edo euskaldundu nahiko den

zenbateko kualitatibo eta kuantitatiboen zehaztapena: pertsona kopurua eta norbanako hauen kualifikazio espezifikoa, esaterako.

2014. urtea ondo sartuta dugun honetan ordea, euskararen biziraupenerako bestelako neurri batzuk hartu beharraren iritzi bat baino gehiago mahai gainean jarri da. Jesus Rubiok dioenez, (Euskarazko kazetaritzaren I. kongresua, Euskara Komunikatiboa txostena, Joxerra Gartzia)
“ hizkuntza ikasi eta erabiltzean ez badira hiztunaren komunikazio premiak asetzen, hizkuntza tresna kamutsa gertatzen bazaio hiztunari, ongi alferrikakoak izango dira motibazioa lantzeko “kanpotik” egindako gainerako ahaleginak ”.

Egin beharreko galdera honakoa izango zatekeen: Zertarako eta zergatik nahi dut euskara ikasi, eta ez alemaniera, ingelera edo frantsesa? Euskara ikasteko motibazioa izango da, beraz, lan honetako jomugetako bat.

La motivación básica para hablar otra lengua: la comunicación

“ Así el papel capital de la motivación resulta evidente, y también que la primera motivación es el deseo o la necesidad de comunicar. Incluso el niño que en su casa aprende a hablar en una sola lengua puede sentir posteriormente esta necesidad si en su entorno social se habla otra lengua o si su familia emigra a un país extranjero. También en estos casos, harto frecuentes, el niño puede verse llevado a adquirir espontáneamente otra lengua movido sólo por su deseo de comunicar. Pero este deseo es muy distinto según las situaciones en las que se produce el contacto. En unos casos el sujeto podrá elegir la lengua de comunicación y en otros casos sólo podrá comunicar en la del interlocutor, en unos casos se sentirá en posición de superioridad frente a los que no hablan su lengua y en otros casos ocurrirá a la inversa y se sentirá inferior mientras no logre dominar la lengua del país al que ha llegado. En muchos casos también los hablantes de otra lengua le aparecerán como formando parte de un grupo distinto del de los que hablan su

primera lengua y las relaciones entre los grupos le aparecen, influido por las ideas de sus mayores, como cordiales o como hostiles.


De manera que en estas situaciones de adquisición espontánea el deseo de comunicar sigue siendo el motivo fundamental, pero es un motivo que toma formas muy variadas y que es, en gran parte, un producto social “.

Miquel SIGUAN (2001): *Bilingüismo y lenguas en contacto*, Editorial Alianza Ensayo, pág. 96.

Oinarrizko motibazioa komunikatzailea izango da: kanpoko edo tokiko kultur komunitate batetako kideekin komunikatzea. Badaude, ordea, beste motibazio batzuk euskara ikasterakoko garaian. Motibazio horiek euskararekiko jarrera ezberdinek eragiten dituzte, eta jarrera hauek ere aldatzen/eraldatzen joan dira euskal esparru soziolinguistikoan urteak aurrera joan ahala. Iñaki Martínez de Lunak 3 motibazio ezberdin azpimarratu ditu euskara ikasteko garaian: (Martínez de Luna, 1996: 48): motibazio sinbolikoa, Euskal Herriko partaide izateari lotua; arrakasta-motibazioa, gizartearen elite sozio-ekonomiko eta politikoen hizkuntza-ereduari jarraitzeari lotua; eta ezaguna den motibazio pragmatikoa.

Arrakasta-ereduen balio-sistemen irudia. Unibertso sinbolikoa (Iñaki Martínez de Luna, 1996).

Euskarari buruzko diskurtsoak



Martinez de Lunak aurkezten duen ereduaren arabera, motibazioen eragina hizkuntza-eremuan agertzen da; inguruneko baldintzek motibazio pragmatikoak sortzen dituzte eta horiek hizkuntza-eremuan erabakigarriak dira. Mendeko hizkuntza ikasteko eta erabiltzeko prozesuak aurrera eramateko, abiatzean maila goreneko edo indar handieneko motibazioak behar dira (adibidez, Motibazio Sinboliko-I), batez ere inguruneko baldintzak hizkuntza horren kontrakoak badira. Kasu horretan, motibazio sinbolikoak oztopo hori gainditzeko adinakoak badira eta, indartsu irauten badute (Motibazio Sinboliko-II), hizkuntza ikasi edo erabiltzeraino heltzea posible izango da. Euskarari dagokionez, kasu askotan motibazio sinbolikoak ez dira nahikoa inguruneak ezartzen dituen baldintza eskasak gainditzeko. Egoera horietan, ikas-prozesuari ekin eta eusteko zein erabilerarako ahaleginek porrot egiten dute.

Arrakasta-motibazioei buruz esan daiteke Euskal Herriko elite gehienek hizkuntza-eredua erdara izan dela eta oraindik ere horixe dela. Beraz, arrakasta-ereduaren aldetik ez da motibazio arrakastatsurik sortu. Sozialki arrakasta-ereduko hizkuntza erdara denez, euskarak eragin horren aurka egin behar du (Martinez de Luna, 1996).

1980. hamarkadako euskarazko gau-eskola klaseak eman zituzten irakasleak bolondres moduan aritu izan ziren gehientsuenak. Baina ikasle zirenen perfilak, nolako bilakaera izan du gure egunetaraino? Garai hartako ikasleen motibazioak zerikusi gutxi du egungo ikasleen motibazioarekin. 40 urteko Diktadura Erregimenaren osteko urteak ziren eta urte luzez zapalduetako sentimendu asko askatasunez plazaratzeak errepikaezineko giroa sortu zuela esatea ez da gehiegi esatea, inondik ere. Urte luzetan zehar debekatutako hizkuntza ikastea “ moda “ hutsa izateaz haratagokoa izan zen, eta jende asko izan zen sekulako indarrez zetorren olatu hartara igo zena. Motibazio ideologiko batez hitz egin daiteke euskara ikasteko orduan:

Gaur egun ordea gizarteko zati esanguratsu batean bestelakoa da euskararekiko sentimendua. Badirudi Administrazio ezberdinak euskalduntzeko azken bi hamarkadetan egin diren ahaleginek uxatu egin dutela euskararenganako sentimendu erromantiko hura. Inposaketa hitza ere badabil askoren ahotan eta ez da arraroa kale giroan euskararen aurkako diskurtsoak ere entzutea. Azken urteotako fenomeno dugu hau, eta dudarik gabe euskararen ezagutzan zein erabileran eragin handia izan dezake diskurtso hau zabalduz joaten bada datozen urteetan. Euskal Lobbyaren indarra aipatu ohi da EAEn argitaratutako kontsumo handiko hedabide askotan, eta urteen poderioz badirudi mezu hau gizarteko zati askotara iritsi dela.

Lan honen helburua gaurko euskara ikaslearen euskararekiko jarrera ikertzea eta hausnartzea izango da: Euskararekiko harremana nolakoa den, eta batez ere, euskararekiko AFEKTURIK EDO ERAKARGARRITASUNIK sentitzen duten ala ez. Frogatuta dago jadanik hizkuntzen ikasketa eta erabileran hizkuntza eta hizkuntza horren atzean dagoen kulturarekiko maitasunak eta estimuak eragin nabarmena dutela; horra ba, lan honen zergatia.

4.-HIPOTESIAK

Buruntzaldeako AEK-ko ikasleen motibazioa denboran zehar aldatzen joan dela eta aldatzen doala uste dut, eta gaur egun motibazioa hein handi

batean instrumentala delakoan nago. Horrela balitz ikasle hauen euskararekiko jarrerengan aldaketa honek zein nolako eragina eduki duen aztertzea izango da helburua. Euskararekiko duten afektua ere urteetan zehar gutxitu egin dela uste dut ikasleen aldetik. Are gehiago, zenbaitengan zeharo desagertu dela ere esango nuke.

Euskara inposatu egin zaiela askotan entzun dut Euskaltegian bertan ikasleren batekin bakarka geratu naizenen batean. Sentsazio hau zenbatekoa eta norainokoa den ikusi nahiko nuke, benetan halako sentsazioa dagoela frogatuko balitz ikasleen erantzunak aintzat hartuz.

Nire lehenengo helburua bi hipotesi hauek baieztatzea, ezeztatzea edo neurtzea izango da. Ondoren emaitzak teoria eta iritzi ezberdinekin konparatu eta alboratuko ditut; konparaketa horretatik ondorio kritikoak ateratzea izango da azken helburua, egoeraren zergatiak eta aldagai ezberdinak ahalik hoberen ulertzeko. (ez dut helburu Plan zehatzik aurkeztea egoera zehatz bat aldatzeko edo ezartzeko. Balizko Plan hori diseinatu ahal izateko gure ikasleen motibazioak eta euskararekiko jarrerak aztertzea baizik).

5.-METODOLOGIA

Euskara ikasteko garaian dituzten motibazioen aldagai ezberdinak identifikatzeko galdesorta bat egin diet Lasarte-Oriako Muntteri AEK euskaltegian euskara ikasten diharduten hainbat ikasleri. 2 maila ezberdinetako ikasleak dira: Talde batean Europako Markoko B2 mailako ikasleak leudeke eta bestean A2.1 mailakoak. Talde bakoitzetik 5 ikasle aukeratu ditut, tipologia ahalik eta zabalena lortu nahian. Ikasle bakoitzarekin aurrez aurreko ordubeteko saio bat egin dut, 8 galdera zehatz eginez eta beraien erantzunak grabagailuan grabatu ondoren idatziz transkribatuz eta sintetizatuz. Galdera berak egin dizkiet guztiei, baina kasu batzuetan ez ditut galderak hitzez-hitz formulatu; erantzuna aurrez-aurreko elkarrizketak baldintzatuko zuela estimatu dudan kasuetan galdera zeharkakoa izan da.

Banakako elkarrizketekin sartu aurretik baina, eta egungo Lasarte-oria eta Usurbilgo euskara ikasleen euskararekiko jarrera eta joera aztertu aurretik nondik gatozen azaldu nahi nuke labur bada ere. Soziolinguistika klusterrean datu eta estatistika ugari dago, non Buruntzaldeako euskara erabileraren bilakaera azter daitekeen. Nire helburua oraingo eta etorkizuneko euskara ikasleen motibazioen nondik norakoa aztertzea denez ez zait iruditu egokia Taula hotzak sartzea.

Horren ordeztu Gabriel Nogues Martikorena Lasarte-oriatar beteranoaren hitz batzuk sartzea erabaki dut, Buruntzaldeako euskararen bilakaera modu oso argian azaldu baitzuen “ Euskera eta gaztelaniaren elkarbizitza Lasarten “ mintzasaioaren baitan. (2009-ko abendua).

Gabriel Nogues (1920-an jaioa) Lasarten jaioa zen eta Lasarten bizi da gaur egun ere. Jostun ofizioa ikastera joan zen Iruñara hamazazpi urte zituelarik eta han zegoela Espainiako gerra zibila hasi zen. Familia sakabanatu egin zitzaion eta lubakiak egiten ibili ostean preso eraman zuten bere anaiekin batera. Gaztea izaki libre utzi zuten eta Lasartera itzuli zen, jostun gisa lanean hasiz. Gaur egun bere jaioterrian ezezik bere jaiotetxean bizi da Lasarten, herrian “ Traperia “ ezizenez ezagun den etxean. Hona Gabrielelek emandako hitzaldiaren zati esanguratsu bat, non orduko eta egungo Buruntzaldeako euskararen egoeraren inguruko bere irudipena ematen duen (Jon Alkortak iruzkindua, ahotsak.com webgunean, ikusentzunezko dokumentua.):

:

- Baiño ez zizuen euskeraz iten ordun, erderaz iten zizuen?
- Bai bai, dana erderaz.
- Ta zuek eunero moldatzen al ziñaten?
- Bai, zeatikan erderaz, erderaz oso errexa da ikasten.
- Baiño Lasarten aitzen zan erdera kalia?
- Bai, bai, bai.
- Bai e?
- Bai, bai. Baiño ia general euskeraz. Baiño geo nahi euskera asko atzeatu zait,

zeatikan ni hamalau urtekin joan nitzan ofiziyua ikastea Pamplona. Ya erderaz. Geo gerra atea zan. Iya dana erderaz. Geo gerra bukatu, honea etorri giñan. Hemen, lana leheno lana euskeraz zan ta geo hasi zan kanpoko jendia etortzen, total dana erderaz. Hemen urte asko izandu dia euskeraz ia ez zan aitzen. [...].

Usurbilen “por ejemplo” ta Zubitan kanpoko jendeik ez zeon ta euskeraz hitz eiten zan. Baiño hemen, hainbeste jende etorri zan kanpoko, nahi ta nahi ez, dana erderaz. Eta oain ostea, hasi gea euskeraz.

Eta euskera nei in zait asko atzeatu.

- Ez du ba ematen.
- Bai baiño, ez det ondo letzen ta zeatzen, euskeratik erdera pasatzen ta, asko kostatu; ezin det, ezin det.
- Hoi zailla da, bestela're?
- Ezin det, “o sea que” hasten naiz letzen, geo ze esan nahi dun erderaz ta nahastu iten zaizkit.
- Hoi nei're bai e. Horreatik behintzat lasai eon.

Elkarrizketatutako ikasleen izena ez da benetakoa, baina bai gainontzeko datu pertsonalak. Honakoak dira:

- Iñaki, 61 urte, ezkondua eta bi alaben aita, aurrejubilatua, usurbildarra.
- Antton, 42 urte, ezkongabea eta seme-alabarik gabe. Finka Administraria, usurbildarra.
- Maria, 45 urte, ezkongabea eta seme baten ama, abokatua, Añorgan duela hiru urtetatik aurrera bizi den madrildarra.
- Silvia, 39 urte, ezkongabea eta seme-alabarik gabe, zerbitzaria ogibidez, donostiarra.

Goiko ikasle hauek 2013-2014 ikasturtean astelehenetik ostegunera egunero bi ordu eta erdiz dihartute euskara ikasten Lasarte-Oriako Munterri AEK euskaltegian.

Euskarari buruzko diskurtsoak

-Ines, 54 urte, ezkondua eta bi seme-alaben ama, geriatriako langilea, usurbildarra.

-Lucia, 45 urte, ezkondua eta seme baten ama, Ospitaleko garbitzailea, donostiarra.

-Ana, 69 urte, alarguna eta lau seme-alabaren ama, erretiroa hartuta, donostiarra.

-Laura, 42 urte, ezkondua eta bi alabaren ama, optikako langilea, lasartearra.

-Koro, 49 urte, ezkondua eta seme baten ama, langabezian, usurbildarra.

-Miren, 52 urte, ezkongabea eta seme-alabarik gabe, udaletxeko langilea, usurbildarra.

Azken sei ikasle hauek Europako Markoko B2 maila lortzeko taldean dihardute astelehenetik ostegunera egunero bi orduz Usurbilgo Etumeta AEK euskaltegian.

Hauek izan dira banan-banan eta ordubetez bakoitzari egin zaizkion galderak:

-Zergatik ari zara euskara ikasten? Zein da zure motibazioa? (galdera ireki gisa planteatu dut, baina Ines, Koro eta Lauraren kasuan erantzunik ematen asmatu ez dutenez aukera zehatz hauek aurkeztu dizkiet: motibazio pragmatikoak, hau da, lana bilatzeko edo lanpostu zehatz batean egoera hobetzeko, eta motibazio integratzailea, hau da, komunitate baten partaide sentitzea.)

-Euskarak ba al du zure ustez loturarik politikarekin? Arrazoitu, ahal izanez gero, zure erantzuna.

-Euskaraz bizi nahi al duzu?

-Euskara ikasteak merezi al du? Erantzuna baiezkoa bada, zeintzuk dira jaso edo bizi dituzun edo bizi izan dituzun onura horiek?

-Gomendatuko al zenioke gertukoren bati euskara ikatea? Arrazoitu zure erantzuna.

-Euskara klaseak doanekoak izan beharko lirateke edo ez? Arrazoitu zure erantzuna.

-Aipatu euskarak sorrarazten dizkizun sentimendu edo sentsazio ezberdinak.

(Hemen ere guztiei argibidetxo bat eman diet, honako sentimendu ezberdinak bistaraziz: poza, harrotasuna, frustrazioa, gorrotoa, nahia, ilusioa, antsietatea, beharra, komunitate bateko partaidetza sentimendua, inposaketa, eta justizia.)

-Ados al zaude Erakunde Publiko ezberdinak euskalduntzeko Eusko Jaurlaritzak azken bi hamarkadetan abian jarri dituen neurriekin, eta zehazki, lan-postu ezberdinak euskara-profilekin hornitzearekin?

Lehenengo taldekoekin galdera-erantzun saioa gazteleraz egin dut, laurek aurrez aurrekoan erantzunetan ezin zutela sakondu esan baitute. Bigarren taldekoekin, aldiz, euskara hutsean egin ditut elkarrizketak.

Galderen erantzunak banan-banan aztertu ditut, eta ordubeteko transkripzioa osorik sartzea zentzuzkoa ez denez, hitzez-hitzezko elkarrizketatu bakoitzaren esaldirik esanguratsuenak sartuko ditut, bere ideia nagusia laburbilduko duelakoan. Goazen bada besterik gabe:

6.-EMAITZAK

1.go galdera: Zergatik ari zara euskara ikasten? Zein da zure motibazioa? (galdera ireki gisa planteatu dut, baina Ines, Koro eta Lauraren kasuan erantzunik ematen asmatu ez dutenez aukera zehatz hauek aurkeztu dizkiet: motibazio pragmatikoak, hau da, lana bilatzeko edo lanpostu zehatz batean egoera hobetzeko, eta motibazio integratzailea, hau da, komunitate baten partaide sentitzea).

Erantzunak honakoak izan ziren:

Antton: *“Hoy día te piden perfiles para todo y para mi trabajo también empieza a ser importante. Hay gente que me empieza a hablar en euskera y tengo que pasarme al castellano. No está la cosa para perder clientes...”*

Iñaki: *“ Mi mujer es euskalduna, mis hijas también y mi suegra también lo era. Quiero aprender porque soy de aquí y me da vergüenza no saberlo, soy de aquí de toda la vida y es la lengua de aquí, qué menos que aprenderlo ahora que tengo tiempo...”*

Maria: *“ Hemengo hizkuntza da, ikasi behar duzu. Inglaterrara joaten banaiz inglesa ikasiko dut, eta hemen euskera. Nola ez !”*

Silvia: *“ todo el mundo te habla euskera ya, me da mucha pena no entenderles, me estoy perdiendo un montón de cosas y me da mucha pena. Por eso estoy en el euskaltegi! ”*

Ines: *” ez dut lan egiteko behar, jadanik badaukat lehenengo perfila. Baina Usurbilen bizi naiz, eta hemengo hizkuntza euskera da “*

Lucia: *“ lanarengatik ikasten dut. Nik ez dut kalean euskaraz hitz egin nahi, nire hizkuntza gaztelera da eta gaztelera hitz egingo dut aurrerantzean ere “*

Ana: *“ nire amak bezala hil nahi dudalako ikasten dut euskara. Euskaraz hil nahi dudalako “*

Laura: *“ lanarengatik eta umearengatik. Normalean gaztelera hitz egiten dut eta ez daukat hori aldatzeko asmorik “*

Koro: *“ Francok eragotzi zidan euskera ikastea. Ni usurbilgoa naiz betidanik, lotsa ematen dit euskara ez jakitea... “*

Miren: “ gure hizkuntza da, jakin behar dut. Hemen bizi naiz, Espainian gazteleraz egiten da, ez? Ba Euskal Herrian euskeraz, oso erraza da ulertzeko esplikazio gehiagorik gabe! “.

Erantzunen azterketa: Deigarria da euskara ikastera egunero bi orduz etortzen den pertsona bat euskaraz hitz egiteko inolako asmorik ez duela esaten entzutea. Motibazio afektiboak dituztenak ere badaude, identitatezkoak dituenik ere bai, eta baita integratuta sentitzeagatik ikasten duenik ere. Baina hiru ikaslek esan dute euskara lanaren hobebharrez ikasten dutela soilik, eta hauetako bik egunerokoan euskara EZ erabiltzeko asmoa azaldu dute. Beste bik euskara ez jakiteak lotsa ematen dielako dihardute euskara ikasten. Batek bere motibazioa ideologiko-politiko delako argi utzi du eta gainontzeko laurek bertako hizkuntza delako ikasten dutela diote, ñabardura batzuekin bada ere. Esaterako, Anak motibazio afektiboa du, bere ama bezala hiltzea, alegia.

Zera nabarmenduko nuke: gutxienez elkarrizketatuen erdiak ez lukeela euskara ikasiko “ behartuta “ sentituko ez balitz: Herriko-kaleko giroak, familiak, lagunek, lanak, edo umeen eskolako lanek behartuta, hain zuzen ere. Eta gainontzekoen artean “bai-bainako” euskaldunen bat edo beste ere ikus daiteke, Koro eta Iñaki esaterako; lotsagatik ikasten dute euskaraz.

Ondoriozta daiteke beraz beren herrian euskararen presentzia hutsaren hurrengoa balitz erosoago egongo liritekeela, nahiz eta beraien diskurtsoak itxuraz euskaltzaleak edo euskararen aldekoak izan.

Autodeterminazioaren teoriaren arabera -- Self-determination theory-- (Deci & Ryan, 2013; Vallerand, 1997) gizakiok motibazio intrintseko eta estrintsekoak darabilzkigu. Lehena zerbait egiteak sortzen duen asebetetasunean oinarritzen da, baina bigarrenean helburua lortzea izango da motibazioaren motorra, hau da, “saria “eskuratzea edo “ zigorra “ saihestea. Nire elkarrizketen erantzunak estatistikoki aztertuta, motibazioak estrintsekoak zein intrintsekoak direla ikus daiteke: Korok eta Iñakik “ lotsaren zigorra “ saihesteko ikasten dihardutela ondoriozta daiteke eta Laurak, Luciak, Silviak

eta Anttonek ere ez dute ikasten asebate sentsaziorik sentitzen dutelako ikas-prozesuan, arrazoi profesionalak edo familiar-tekoak dituztelako baizik.

Vallerand-ek (1997) hiru ezaugarri esleitzen dizkio intrintsekotasuri: a) Ikasteko helburua izatea, hau da, zerbait berria ikustekoa edo norberaren jakin-min intimoa asetzekoa. b) erronka bat gainditzekoa eta lorpen horretatik atsegina lortzea. c) estimulazioa sentitzeagatik. Jaso ditudan erantzunak aztertuta, Maria, Ines, Ana eta Mirenek motibazio intrintsekoa azaltzen dutela ondoriozta daiteke, ñabardurekin bada ere euskara ikastearen prozesuak berak edo prozesuaren ondorenak asebetetze sentsazioa ematen diela dirudielako.

Hizkuntza zehatz baten inguruko jarrera hizkuntza horren ospeari lotuta egon ohi dela badakigu. Ospea gehienbat onarpen ofizialetik (estatus ofiziala, babes instituzionala, babes ekonomikoa...) edo tradizio kulturaletik garatzen da, adibidez, literatura idatziak eta ahozkoak emandako estatusetik.

Hizkuntza ofizialen kasuan hizkuntzak berak ematen die ospe politikoa, ekonomikoa eta soziala hiztunei, eta hizkuntza prestigiodunen hiztunek beste hizkuntza batzuekin harremana dutenean (hizkuntza-ukipenezko egoeretan), ñabardurak sortzen dira. Gure kasuan gutxienez lau ikaslek azaldu dute motibazio afektibo/ideologikoz haratago nolabaiteko "beharrak " bultzatu dituela euskara ikastera. Zera ondorioztatuko nuke: ikasle hauen kasuan euskarak izango luke nolabaiteko ospe edo prestigio hori; Laurak eta Luciak beraien lan egoera hobetzeko ikasten dihardutela erantzun dute, eta biek ala biek kalean euskaraz aritzeko asmorik ez dutela ere esan dute. Anttonek ez du halakorik esan, baina aurreko biak bezala lan kontuek eraginda diharduela euskara klaseetan ondoriozta genezake: " hay gente que me empieza a hablar en euskera y tengo que pasarme al castellano. No está la cosa para perder clientes. "

Lanerako erabiltzen diren hizkuntzak hizkuntza indartsuak izan ohi dira; kasu honetan, Lasarte-orian euskararen egoera oraindik-orain diglosiazkoa dela esan daitekeen arren eraginkor suerta daiteke euskararen derrigortasunezko

sentsazio hau zenbait erdaldun profil (euskararekiko bestelako motibazio moetarik erakusten ez dutenak) euskarara erakartzeko.

Hizkuntzen ukipenezko harremana hedapen-maila handiko hizkuntzarekin gertatzen bada, (gaztelera kasu gurean), edo hizkuntza horrek mugaz haragoko beharriaz erantzuten badie, hizkuntza horrekiko jarrera positiboak agertuko dira, ez baditu, behintzat, taldearen nortasuna edota identitatea arriskuan jartzen. Esate baterako, mendebaldeko Europan Bigarren Mundu Gerratearen ondoren ingelesak hartu duen onarpen-mailak sortu duen jarrera oso aldekoa izan da ia oraintsu arte, hizkuntza hori erabiltzeak dakartzan abantailak handiak direlako mendebaleko gizartean.

Nolanahi ere, Frantzia bezala Danimarkan edota Norvegian ere, hain positiboak ez diren jarrerak azaltzen ari dira ingelesaren hedaduraren aurrean; bertako hizkuntzaren erabilera-esparruan zenbaitetan ingelesak hartu duen lekua kezka eragiten hasi baita beste hizkuntza horien hiztun-komunitatean.

Euskara hedapen-maila txikieneko hizkuntza izan arren gerta daiteke, ordea, zenbait ikaslerengan horrelako edo antzeko sentsaziorik eragitea; hau da, euskararen derrigortasun horrek norberaren ama-hizkuntza zein kultura zokoratu beharriaren sentsazioa eragitea, hain zuzen ere. Ez dirudi elkarrizketatutako ikasleen artean hedatua den sentsazioa denik. Hala ere, Lucia eta Lauraren erantzunek sentimendu hori nolabait badaukatela ematen dute aditzera; nik egindako galdera modu positiboan formulatutakoa da, eta ondorioz modu positiboan erantzutakoa. Euskara ikasteko motibazioaren inguruan galdetu diet, zergatik ari diren euskaraz ikasten. Luciak aldiz ezezko eran erantzun dit, berak ez duela kalean euskaraz hitz egin nahi esanez. Ondoren bere hizkuntza gaztelera dela berretsi du eta aurrerantzean ere gaztelera biziko dela argi utzi nahi izan du. Laurak ere ezezko osagai bat sartu du, normalean gaztelera aritzen dela eta ez duela egoera hori aldatzeko asmorik esanez. Ez dira egindako galderaren erantzun naturalak, ez baitiet beraien egunerokoan euskaraz edo erdaraz aritzen diren galdetu. Beraien nortasuna (hizkuntza, kultura, gaztelera izatera propioa) mehatxupean

ikusten eta sentitzen dutela dirudi horrelako erantzunak ematerako. Halere, bi kasu hauez haratago, ez dirudi gainontzeko ikasleek horrelako sentiaziorik dutenik.

Aldiz, ukipenezko harremana ospe gutxiagoko hizkuntza batekin ematen bada, hizkuntza ofizialeko hiztunek sarritan axolagabekeria edo gutxiespenezko jarrerak erakusten dituzte hizkuntza eta hiztun horiekiko (Martí eta beste, 2005). Beste batzuen artean, hori izan da munduko hizkuntzen galera-egoera larria eragin duen arrazoia. Stephen Wurm-ek dioen modura," gaur egun galtze-arrisku bizian dauden hainbat eta hainbat hizkuntza ez leudeke ataka horretan harremana izan duten hizkuntza handi eta nagusi diren hiztunen jarrerengatik ez balitz, horiek uste baitute elebakartasuna egoera normal eta desiragarria dela, eta ondorioz, mendean hartutako hizkuntza zokoratzera behartzen baitute..." (Crystal, 2000)

Estatus ofizialik ez duten hizkuntzei dagokienez, ospe kulturalak eta erkidego-identitateak garatzen dute hizkuntzaren aldeko jarrera positiboa.

Hiztunak hizkuntzarekin harro sentitzen badira, besteei entzutean gozaten badute, ahal duten guztietan ahal bezain modu sortzailean erabiltzen badute, hizkuntza horrek etorkizunerako kondizio egokienak izango ditu. Crystalek dioen modura, hizkuntzarekiko jarrera positiboak sustatzea hizkuntzaren etorkizuna ziurtatzeko helburu bat da (Crystal, 2000) . Baina komunitate batek bere hizkuntza ordezkatzeko presioak jasotzen baditu, nahiz eta hiztunek beren hizkuntzaz harro daudela adierazi edo aldeko jarrera aitortu, prestigio handiagoko beste hizkuntza baten aldeko ordezkatzek gertatzen dira, arrazoi pragmatikoak direla medio (Martí eta beste, 2005).

Elkarrizketetan jasotako erantzun batzuk argi uzten dituzte beste hainbat parametro: euskararen inguruan harrotasun sentiazioa du hainbat ikaslek, ondorengo galdera bati emandako erantzunetan ikusiko dugun bezala. Galdera honi emandako erantzunetan Mirenek, Mariak eta Iñakik erkidego sentipena dutela dirudi. Iñakik " soy de aquí de toda la vida y es la lengua de aquí ... " dio, Mariak hemengo hizkuntza delako ari dela ikasten esan du eta beharbada

Euskarari buruzko diskurtsoak

Miren da harrotasun eta erkidego sentsazioak uztartu dituen elkarriketatu guztien artean ondokoa erantzunez: “ Gure hizkuntza da, jakin behar dut. Espainian gazteleraz hitz egiten da, ez? Ba Euskal Herrian euskaraz “.

Nolanahi ere, kontuan izan behar da hizkuntzarekiko jarrerak ez direla komunitate osoan homogeneousak izaten. Alde batetik, hirietako eta landa-inguruneetako biztanleen arteko aldea nabaria izan ohi da, batez ere, urbanizazio azkarraren eraginez. Bestalde, belaunaldi gazteek errazago aldatu izan ohi dituzte euren hizkuntzaren aldeko jarrerak, ospe handiagokoa denaren alde eginez. Kasu honetan elkarriketatuak helduak dira, 42-69 adin-tarteko ikasleak, eta ez dirudi euskararekiko duten jarrera aldatzea azkar joango denik.

Alderantzizkoa iruditzen zait erantzunak ikusita, bakoitzak euskararekiko jarrera ondo definitua duela eta zaila izango dela jarrera modu esanguratsu batean aldatzea.

Norberaren hizkuntzarekiko jarrera negatiboek, askotan, hizkuntzaren ordezkatzeko-prozesuak eragindako lotsa-sentimenduetan dute iturburua. Egoera hori oso nabarmena da munduko hizkuntza indigena askotako hiztunengan, baina baita Europako herrialdeetan ere, gutxiengo hizkuntzak estatuen asimilazio-politikapean daudenean. Gainera, hizkuntzen inguruko jarrerak hiztunen ingurukoak ere islatzen dituztenez, oso zabaldua daude hizkuntzen mailakatzean behealdean geratzen diren hiztunekiko jarrera negatiboak. Elkarrizketetan formulatutako zazpigarren galderako erantzunek argi gehiago emango digute honen inguruan, galdera honetan jasotako erantzunetatik ez dut horrelakorik edo kontrakorik ondorioztatzerik izan.

Historian zehar sortutako jarrera negatibo horien eragina modu ugarian ager daiteke baztertutako hizkuntzetako hiztunengan: gutxiagotasun sentimenduak, lotsa eta konfiantzarik eza, ondorengoei norberak bizi izandako zailtasunak ekidin nahi izatea eta abar. Ezagunak dira belaunaldien artean euskara modu deliberatuan galdu dutenen kasu batzuk, Julian Retegi

pilotariarena, esaterako. Eragin hori norberaren hizkuntza ezagutzea ukatzeraino hel daiteke. Ezaguna da, esate baterako, migrazio mugimenduetan pertsona etorri berri askok euren herrietan osperik gabeko hizkuntzetan hitz egiten badute, hizkuntza bera ukatzea (Uranga eta beste, 2008)

Jarrera negatiboek, esan bezala, hizkuntza alboratzea, bere transmisioa etetea edota ez ikastea ekarri ohi du. Horrela, hizkuntzaren ekoizpen naturala (hiztun erkidegoan hizkuntza belaunaldiz belaunaldiko iragaitea) eta erreprodukzioa (hiztun berriak irabaztea) galtzen dira (Europako Batzordea, 1996), biziraupenerako oinarritzko bi betebeharrak, hain zuzen.

Kontuan izan behar da, gainera, joera hori aldatzeko ahaleginak ere, oztopoz beterikoak izan daitezkeela. Norberaren hizkuntza ukatzerainoko lotsa sentitzen duen hiztuna edo komunitatea bere hizkuntzaren balioaz jabeazteak ez du arrakasta erraza izango. Zaila da hizkuntzarekiko gogoia sortzea etengabe bazterketara bultzatua sentitu den hiztunarengan, edota hiltorian dagoen hizkuntza batean hitz egiten duela esan zaion hiztunarengan (Crystal, 202).

2.go galdera: Euskarak ba al du zure ustez loturarik politikarekin? Arrazoitu, ahal izanez gero, zure erantzuna.

Erantzun irekiak eskatu dizkiet, erantzun zehatzik eskaini gabe. Hona erantzunak:

Antton: *“ Creo que sí, aquí si no sabes euskera no tienes carné de vasco, y todos somos de aquí. Hay veces en las que sientes que te están dejando fuera porque no sabes euskera; como en tiempos de Franco con el castellano, vamos... “.*

Iñaki: *“ Lo politizan los de siempre, los fachas y los que quieren el pensamiento único. Lo tienen muy fácil los que dicen que los abertzales se apropian del euskara: te lo aprendes y listo! “.*

Maria: “ Uste dut ezetz. Denek hitz egin nahi dute euskaraz, alderdi politiko guztietako jendeak. Inor ez dago kontra, nola ba!”.

Silvia: “ Sí, pero como todo aquí. A mí no me afecta eso, creo yo al menos... “.

Ines: “ Ez zait iruditzen. Batzuek ez dute euskararekin ezer jakin nahi, PPko jendeak eta horiek, eta kaka botatzeko aprobetxatzen dute askotan...”

Lucia: “ Baietz uste dut, badirudi orain obligatorioa dela euskaraz hitz egitea. Ez baduzu hitz egiten ematen du euskararen aurka zaudela, eta hori ez da horrela.”

Ana: “ Ez, ez, ez... Nik ikusi nuen zer egiten zuen Francok euskararekin, hori bai dela politizatzea... orain gure kultura eta hizkuntza errekuperatu behar ditugu, lapurtu zizkigutenak diktadoreekin... “.

Laura: “ Pixkat bai, baina uste dut orain gutxiago. Orain dela hamar urte edo bai, baina orain gutxiago. Euskaltegian ez dago politikarik, edo behintzat ez dugu horretaz hitz egiten... “.

Koro: “ Ez zait iruditzen. Hemen denetako jendea bizi gara eta ez daukagu arazorik euskararekin. Hori bai: gaizki iruditzen zait esatea euskaraz ez dakiena ez dela euskalduna, denok gara hemengoak...”.

Miren: “ Bai, betikoek politizatzen dute: euskaraz entzuten badute seguro ETAKoa, edo terrorista, edo antisistema edo horrelakoren bat dela. Hemen bakoitzak nahi duen bezala hitz egiten du, inor ez dago euskaraz egitera behartuta. Erdaraz egitera eraman nahi digute, eta gainera gu gara terroristak...”.

Erantzunen azterketa: Denetariko iritziak jaso dira; ezin da ondorio argirik atera erantzunei erreparatuz, beraz alde bateko zein besteko iritzi kopuruak aintzat hartuz, ikasleek oro har euskara ez dagoela politizatuta uste dutela ondoriozta daiteke. Edozein kasuan, ez dirudi faktore hau oztopo izango denik euskarari buruzko iritzi positiboa izaterako orduan.

Edonola ere, aspaldikoa da euskararen normalizazioak nolabaiteko “ politizazio” bat behar duela dioen ustea. Euskal Herrian Euskaraz-eko Maddalen Ezkerra eta Iñaki Iriartek 1995ean Soziolinguistika aldizkarian argitaratutako Dossierrean honakoa zioten: “ *euskararen normalkuntza funtsean arazo politikoa denez, ez dago euskararen normalkuntza Euskal Herriaren etorkizunetik bereizterik. Euskararik gabe ez dago Euskal Herriarik, baina euskarak ez du etorkizunik –euskal –herriaren normalkuntzatik at. Gauzak hórrela, apolitizismoan edota gai politiko orokorretatik at euskararen normalizazioa planteatzea okerra da. Euskara eta lurraldetasuna ezin dira bereizi, euskara eta subiranotasun politikoa berezi ezin daitezkeen moduan, eta lurraldetasuna eta subiranotasuna gai politikoak dira bete-betean.* “

Droit et Cultures aldizkarian Myriam Yataco hizkuntzalariak honakoa zioen 2012. urtean Peruko indigenen hizkuntza ezberdinen egoeraren inguruan: “ *En el Perú el estado ha tenido la característica de promover el castellano como lengua oficial, a nivel macro y micro lingüístico. Esto ha ejercido presiones muy fuertes sobre el uso y preservación de las lengua originarias del Perú. El ambiente colectivo, en el cual se han desarrollado las lenguas originarias en la época republicana ha sido tremendamente hostil y marcado por la exclusión, la discriminación y el rechazo. Estas condiciones han logrado que el Perú sea uno de los espacios geográficos con más discriminación lingüística en la zona Andina. Yo describo el nivel tan alto de diglosia en el Perú como un tipo de Apartheid lingüístico. Esta situación de ecología lingüística se demuestra en el rechazo por parte de los castellanos hablantes por las lenguas originarias del país y por sus hablantes* “.

Bertako hizkuntzekiko jarrera erabat oldarkorra izan dela dio Yatacok, eta jarrera horrek, (jarrera politiko deliberatua dela ondoriozta daiteke) Peru Andeen lurraldeko hizkuntzazko diskriminaziorik handienetakoa duen Herrialdea bihurtu duela dio.

Egoera hau konpondu nahian honako Lege aurreproiektua prestatu zuen Peruko Legebiltzarrak 2001-2006 urteen artean:

ANTEPROYECTO Ley de lenguas (2006-2011) EXPOSICION DE MOTIVOS, legislación propuesta por al cong(...)

“Es importante crear las condiciones legislativas que conduzcan a la revalorización y revitalización de las lenguas indígenas. Se parte de la convicción de que es necesario que el Estado tome acciones que reviertan la situación de exclusión y minusvaloración en que se encuentran las lenguas indígenas, debido a las acciones de discriminación por parte de la sociedad y a las inacciones, aunque no intencionadas, del Estado que en materia de lenguas, no ha preparado ni puesto en práctica un plan destinado a orientar, desarrollar o determinar el uso de las lenguas en el país para de esta manera revertir la discriminación que se hace a los hablantes de las lenguas indígenas”.

Gaur egun oso zabaldua dago hizkuntzalarien artean hizkuntzen etorkizunean borondate politiko ezberdinek duten pisua. Hizkuntzak ez dira berez zabaldu edo desagertzen, ekintza zehatzak dira hizkuntzak indartu edo ahultzen dituztenak denboran zehar, eta lege marko zehatzak dira ekintza batzuk edo kontrakoak bultzatu edo indartzen dituztenak.

Burututako elkarrizketaren emaitzek argi erakusten dute ikasleek ez dutela euskara politizatuta dagoelaren sentsaziorik, salbuespenak –salbuespen: Anttonek, Korok eta Luciak baiezkoa erantzun dute eta beraien ezadostasuna adierazi dute euskararen politizazio horrek ustez sortzen dituen ondorioekin. Luciak euskaraz hitz egitea derrigorrezkoa dirudiela esan du eta Korok euskaraz ez dakiena euskalduna ez dela esatea gaizki iruditzen zaiola esan du. Baina gainontzeko iritziak oso bestelakoak direla argi eta garbi ikusten da: Iñakik, Inesek, Anak eta Mirenek politizaziorik badago espainiar indarrei egotzi die horren ardura. Laurak eta Mariak aldiz ez dute euskara politizatuta dagoelaren zantzurik. Zera esan daiteke beraz datu hauek aztertu ostean: inkestatuen gehiengoak euskara politika arrazonamendu edo politika lojikatik aparte ikusten dutela, eta ondorioz ez dutela honen inguruan aukera ideologiko zehatzik lotzen euskara jakite edo erabiltzearekin.

Azaldutakoa, ordea, uste edo iritzi bat besterik ez da, eta balio horixe emango nioke jasotako emaitzari, uste edo iritziarena, eta inola ere ez bestelakorik. Ikasleek ez dute ikusten euskararen eta politikaren arteko harremanik, eta argi dago bien arteko harremana aldakorra bezain garrantzitsua dela. Hizkuntza Politika oso bat egiteko garaian ordea, kontuan hartu beharko litzateke nire ustez ikasleek duten pertzepzio hau, gutxienez uste hau orokorra dela erakustsiko balu euskal gizartean egindako bestelako inkesta batek. Hona Joxe Manuel Odriozolak Gaur8 Info webgunean euskara eta abertzaletasunaren inguruan burututako hausnarketaren muina: “

“Militante politikoak uste du arazo politikoa bideratu ahala, arazo linguistikoak ere bidera daitezkeela. Beraz, ikuspegi horren arabera burujabetza nahikoa da. Baina, noski, hori ondo legoke gu euskaldunak izango bagina; alegia, independentziak balioko liguke asimilazio egoera batean aurkituko ez bagina.

Militante euskaltzaleen edota euskalgintzaren barruan ere badago kulturalismoaren arriskua. Hots, euskaratik abiatu eta euskarak bakarrik lortuko duela aurrera egitea; euskaratik eta euskaraz, Maialen Lujanbiok Euskal Herriko Bertsolaritza Txapelketako finaleko agurrean abestu antzera.

Baina, hori posible izango litzateke euskal ideologia batetik, euskal politika batetik sostengatuko balitz. Problematikaren erroak aspektu askotatik ulertu behar dira: ekonomikotik, politikotik, kulturaletik... Beraz, euskalgintzak badu arazoaren muina behar den tokian ez kokatzeko arriskua, arazoa osotasunean ez ikustekoarena. Nazio problematiketarik ihes egiteko joera izaten du.

Nire aburuz, euskalduntasunak abertzaletasuna behar du aurrera egiteko. Abertzaletasunik gabeko euskarak ez du etorkizunik, ezta alderantziz ere. Baina, esaten da euskara ez dela politizatu behar, bestelako masa soziala inplikatu behar dela suspertze horretan, guztiak batuta egin behar diogula aurre... Hori posible balitz, lortuko genuke zerbait aurreratzea, baina halakorik ez dut ikusten.

Eskoletan, esaterako, ezaguera eta transmisioan egiten da lan, eta hortik aurrera ezer gutxi. Baina transmisio hori abertzaletasunik gabe eginez gero,

hizkuntzaren ezagutza da bermatzen dena, ez besterik; kalean, lagunartean, lanean ez badut euskaraz aritzeko inizatibarik hartzen, akabo.

Eta inpresioa dut euskalgintzaren munduan gogoeta hauek ez direla partekatzen, euskararen transmisioa nahikotzat jotzen dela. Alegia, transmisioak hiztun kopurua gehitu egiten du, eta akaso horrekin egoeraren balorazioa positibo bilaka daiteke; nik, aldiz, ez dut hausnarketa hori asko konpartitzen. Izan ere, nahikoa al da hizkuntza baten erabilera hizkuntza bat berraktibatzeke? Akaso bai, baina, horretaz aparte, hiztunak hizkuntza horren problematikaren kontzientzia behar du, jakin behar du hizkuntza hori bere kabuz, bere borondatez erabiltzen ez badu ez dela egoera deus aldatuko. Beraz, euskal hiztunak izan behar du abertzalea, nazio kontzientzia izan behar du, eta euskararen problematika ulertu. Problematizatu egin behar da euskara eta herri honen egoera”.

Iritzi berekoa zen Jose Luis Alvarez Enparantza, “Txillardegi “, eta bestela ikusi Zuialde Herri Informazioa webgunean 2012ko urtarrilaren hamalauan “Txillardegi “-ri egindako elkarrizketa luzearen pasarte hau: **Zure gurasoak ez ziren abertzaleak; euskaldunak bai, baina euskara ere ez zenuen beraiengandik jaso haurtzaroan... Bitxia da, zeren euskaltzale eta hizkuntzalari nabarmena eta ETAre fundatzaileetariko bat zara. Nola iritsi zinen euskarara eta abertzaletasunera?**

Bai, horrela da. Nik txikitatik pentsatu dut euskara nire hizkuntza dela, herriak esaten duen bezala: «euskal» herria (pueblo del euskara, literalki, ezta?). Orduan, niretzat ez zen posible Euskal Herria euskararik gabe. Jakina, nik konprenitzen nuen horretarako behar zirela tresna politikoak, behar zela euskal telebista... behar zirela gauzak, gero lortu ditugunak. Garai hartan ez zegoen ezer. Orduan, planteamendu politiko bat egin behar zela esaten nuen. Ni abertzalea naiz, euskara ez dakien jende asko dago hemen, baina horiek ere laguntzaile izango dira borroka honetan eta, horregatik, euskal politikan ere sartu nintzen.

Beraz, euskarak eraman zintuen abertzaletasunera eta ez alderantziz?

Bai, argi dago: euskarak eraman ninduen abertzaletasunera. Nire ustez, euskaltzale batek derrigorrez izan behar du abertzalea, ez baitago soluziorik hori gabe.

Nolabait esatearren, garai hartan aktibismo kulturala mi- litantzia politikoa garatzeko modua zen?

Ikusi behar da nola zegoen euskal mugimendua. PNVkoak ez ziren horrelakoak; desastre bat izan dira euskara kontuetan. Alderdi abertzale batek bultzatu behar du euskara. Horretan Herri Batasunak, eta ETAk ere bai, etsenplu eman dute. ETAk deklarazio guztiak euskaraz egiten ditu. Eta Ezker Abertzalea ere oso mugimendu euskaltzalea da; gaurko buruzagi guztiak euskaltzaleak eta euskaldunak dira, erabat... Eta hori lehen ez zen gertatzen.

Ni gogoratzen naiz behin egon nintzela Javier Landabururekin -orduan erbestean zegoen Eusko Jaurlaritzako lehendakariordea zen- eta galdetzen zidan: «¿José Luis, no aceptarías tú una Euskadi libre sin euskera?». Eta nik: «¡Pero cómo voy a aceptar una Euskadi sin euskera; eso a mí no me interesa!». Eta besteak: «¿Pero cómo que no te interesa?». «Pues claro que no me interesa. Euskal Herria da euskararen herria!». Berak ez zuen ulertzen. Eta nik pentsatzen nuen: «Landaburu hau non bizi da? Zer mentalitate dauka?» Eta PNVko jende asko horrelakoa zen. Hau desastrea...

Badago, nola ez, kontrako iritzirik ere. Patxi Lopez Eusko Jaurlaritzako lehendakari ohiak bere blog pertsonalean zintzilikatu zituen euskara eta politikaren harremanari buruzko hainbat hausnarketa. Aurreko bi iritzien oso bestelakoa da berea eta euskara eta politikaren arteko loturak ezereztean oinarritzen du hizkuntza politika eraginkor baten izatea. Hona 2008ko Urriaren 3an “Euskara Askatasunez “ izenburupean argitaratutako hitzen muina:

“Gehiegitan jasan dugu euskal gizarteak dituen hizkuntzekiko erabilera politizatu eta gehiegikeria politikoez jositako giroa. Egoera horren aurrean,

defendatu nahi dugun politika euskaltzaleak ezaugarri berezi zenbait izango ditu: oinarri identitario edo historizistatik gabea izango da, gaur egungo euskal gizartearen elebitasunean oinarrituta egongo da eta, ondorioz, akordioan sustengatutako elebitasuna bultzatuko du. Honen ildotik proposatzen dugu enplegu publikorako sarbideak euskal gizartearen izaera anitz eta elebiduna islatu behar duela, hizkuntzaren gaiak ezin dituela euskal hiritarren aukera pertsonalak modu erabakigarrian baldintzatu. Hausnarketa orokor bat egin behar dela uste dugu akordio berri bat lortzeko hizkuntza politikari buruz, bi hizkuntzen hiztunen artean bizikidetzatza librea ahalbideratzeko.. Izan ere, gure iritzirako, euskarazko kultura moderno eta inolako sektakeria ideologikorik gabea sendotzeko bidea neurri eta ekintza berriak bultzatuzetik etorriko da. Neurri eta ekintza horiek, hizkuntzaren erabileraren kasu zehatzean, benetan eraginkorrak izan beharko dute sustatze eta bultzatzeari dagokionez, eta gaztelaniaz bakarrik mintzatzen diren euskal hiritarrak baztertzea ekar lezakeen inposaketazko ezein politikatik urrunduak. “

“...Euskal Autonomia Erkidegoan bi hizkuntza mintzatzen dira, komuna horietako bat bakarrik den arren. Biak ere hartu behar dira erakunde publikoek babestu eta sustatu beharreko ondare sozial eta kultural gisa. Gobernatzeko ardura daukatenez ezin dute baztertu ez euskara ez gaztelania. Hori dela eta, uste dugu lehentasunezkoa dela hizkuntza hiritarren zerbitzura jartzea eta ez alderantziz. Erakunde publikoek hizkuntza-arloan bultzatu beharreko ekintzak ez du bakar-bakarrik euskal gizartearen zati baten irizpideetan oinarritu behar; aitzitik, eredu libreago bat erdietsi behar du, Euskadiko hiritarren hizkuntza-errealitatea errespetatu eta gizarte-kohesioa indartuko duena. Erabat sinetsita gaude euskararen oraingo osasuna eta haren erabileraren geroa hertsiki hertsiki loturik daudela behar bezalako sustatze politika bati, besteak beste, euskara ikastea hurbilerraza eta erakargarria izan dadin.

Nahitaezkoa da, halaber, euskaltzaleasuna ikusmolde abertzale edo nazionalistatik erantsi ohi izan zaizkion edukietatik bereiztea. Euskara lantzea eta ikertzea ez daude berez halako ideologia jakin bati loturik, arlo horietan aritu eta ari direnen perfil politiko denetarikoak erakusten duen bezala. “

Euskarari buruzko diskurtsoak

Halere, honako azken pasarte honek laburtzen du Patxi Lopez lehendakari ohiak euskara sustatzeko proposatzen duen formula “ez-ideologizatu” hau:

“ Eta helburu horien guztien gainetik, eta hizkuntza-faktore soiletik haratago, bada eginkizun premiazko eta oinarrizko bat, hau da, bultzatzea euskarazko kultura bat guztiz demokratikoa eta inolako oniritzi, tolerantzia edo hurbiltasun intelektualik azalduko ez duena ETAREN eta haren inguruaren oinarri ideologiko eta xede totalitarioekiko, horrek, bestalde, pertsona askok euskara eta euskal kulturarekiko duten atxikimendurik eza ekarri baitu. ”

Azken iritzi hau kontraesanean sartzen da nik ikasleekin izandako elkarrizketaren emaitzekin. Inork ere ez du ETA erakundea aipatu, eta soilik bi ikaslek eman diote baiezkoa euskara politizatuta dagoen galderari. Erantzun hauek inola ere ezin dira estrapolatu egin den esparrutik kanpo, (Lasarte-oria eta Usurbilgo AEK euskaltegiko ikasleak), baina ikasle hauengan, bederen, ETA edo abertzaletasunaren eragina ezin da aintzat hartu euskara ikasteko edo ez ikasteteko egin duten hautuan. Euskal Herriko sentsibilitate politiko ezberdinen iritzi esanguratsuenak aipatu ditut orainarte, baina iritzi hauek politikoak lirateke hizkuntzalaritzakoak baino. Iritzi politikoez haratago, baina, beste datu hauek argi gehiago ematen dute euskara eta abertzaletasunaren arteko eraginaz hausnarketa bat egiteko:

Soziolinguistika Klusterrak (SLK) argitaratu dituen datuen arabera (PDF), euskararen kale erabilera azken hamar urteetan ez da ez igo ez jaitsi, “trabatuta” dago. 2011ko VI. Neurketa honetan Euskal Herri osoko 97 udalerrri neurtu dituzte eta 363.616 hiztunen informazioa bildu dute. Iaz, kale-neurketen arabera, euskararen erabilera %13,3koa izan zen, eta 22 urtean 2,5 puntu egin du gora erabilerak bataz beste Euskal Herri osoan. Azken hamar urteetan geldiune bat izan dela adierazi dute.

Soziolinguistika Klusterreko kideek ondorioztatu dutenez, "egungo baldintza soziolinguistikoekin, euskararen erabilerak goia jo du". Txostenean jaso dutenez, erabilerak ezin dezake gora egin elebidunen masa soziala eta euskararen erabilera ahalbidetzen duten sare zein guneen kopurua handitzen ez badira.

Hala ere, euskaldunen zenbatekoa kontuan hartuta, erabilera datuak estatistikoki espero zitezkeenak baino hobekak dira eta, oro har, euskaldunok hizkuntzarekiko fidelak gara.

Lurraldeak eta hiriburuak

Lurraldeka Gipuzkoan erabiltzen da gehien euskara kalean, %32,7; Bizkaian, %9,4; Ipar Euskal Herrian %6,2; Nafarroan %5,7 eta azkenik, gutxien erabiltzen den lurraldea Araba da, %4,0.

Hiriburuei begiratzuz gero, Gasteizek eta Bilbok %25-eko ezagutza maila dute, eta kale erabilera %3koa. Iruñean erabilera bere horretan dago 1997az geroztik, %2,5-2,9ren bueltan. Donostian 1989tik hona ia sei puntu egin du gora erabilerak. Baina, 2011ko neurketan duela hamar urte jaso zuten erabilera bera jaso dute (%15,9), bost urte lehenago erabilera %18koa izan arren.

Euskal Herriko biztanle gehienak zonalde erdaldunenean bizi dira, hau da, ezagutza % 25 baino txikiagoa den eremuan. Biztanleria osoaren %70 inguru bizi da bertan, eta azken neurketan erabilera %3 ingurukoa da. 2006an, erabilera %4koa izan zen.

Klusterreko kideek nabarmendu nahi izan dute Gasteizen, Bilbon eta Iruñean euskara eta gaztelania ez diren beste hizkuntzak euskara baino gehiago erabiltzen direla.

Hona orain 2014. Urteko Europako Legebiltzarrerako Hauteskundeetan goian aipatutako lurraldeetan emandako emaitzak: (Espainiako Barne Ministerioko datuak, Argia aldizkarian argitaratuak:)

BIZKAIKO EMAITZAK

EAJ: 131.915

EH Bildu: 82.563

PSOE: 56.355

PP: 41.820

Podemos: 27.918

Abst: %54,24

GIPUZKOAKO EMAITZAK:

EH Bildu: 73.765
EAJ: 58.001
PSOE: 32.045
PP: 18.678
Podemos: 15.035
IU-EKI: 11.766
Abst: %57,01

NAFARROAKO EMAITZAK

PP: 52.774
EH Bildu: 42.500
PSOE: 30.725
I-E: 20.077
Podemos: 19.766
UPyD:19.766
EAJ: 5.323
Abst: %53,60

ARABAKO EMAITZAK

EH Bildu: 20.697
EAJ: 18.191
PP: 16.907
PSOE: 16.020
Podemos 9.356
IU-EKI: 6.660
Abst: %56,46

Ondorioz: Lurraldeka Gipuzkoan erabiltzen da gehien euskara kalean, %32,7; Bizkaian %9,4; Nafarroan %5,7 eta azkenik, gutxien erabiltzen den lurraldea Araba da, %4,0.

Hauteskundeen emaitzetako datuak euskararen erabilera datuekin alderatuz gero, datu bat aipatuko nuke: euskararen erabilera handiagoa dela abertzaletasuna handiagoa den lurraldeetan. Kasu honetan Gipuzkoa ageri da hauteskunde datuen arabera abertzaletasuna zabalen errotua duen lurralde bezala, eta ondoren, eta beti ere portzentaiei erreparaturik, Bizkaia, Nafarroa eta Araba leudeke hurrenez-hurren. Erabilera portzentaiek ere sekuentzia edo hurrenkera bera jarraitzen dute, abertzaletasun eta euskararen presentziaren arteko lotura baieztatuz. Ezin da hala ere datuotatik elkarreragina zenbaterainokoa den ondorioztatu, bi arrazoi direla eta: Hauteskunde datuak

2014koak dira eta kale neurketakoak aldiz 2011-n egin ziren. Gainera, bozka eta erabileren ehunekoak kasuz kasu aztertu beharko lirateke ondorio zehatz bat aterata ahal izateko, eta ez da hau lan honen xedea.

AEK-k, Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinakundeak ere hausnarketa egin zuen auzi honen inguruan eta erabaki estrategiko garrantzitsu bat hartu zuen helduen euskalduntzea indartzeko bidean: AEK marka inongo alderdi zein ikur politikotatik kanpo uztea, nolabait euskal herritar askok esker abertzalearekin batera irudikatzen zuelako erakundea. AEK-ko ikasle hauen erantzunak ikusita badirudi AEK-k hartutako erabakiak eragina izan duela euskaldun berriek euskara eta euskalgintzak politikarekiko proiektatzen duten irudiarengan. Ondorioa modu batean baino gehiagotan interpreta daiteke; alde batetik positiboa dirudi aukera politiko zehatz batetik edo bestetik haratago euskarak bere bidea egin behar duela irudikatzen dutelako. Bestetik aldiz, zaila dirudi nazio izaera edo kontzientzia sortu ezean ikasle hauek beren egunerokoan euskara erabiltzea, ondoren ikusiko dugun bezala.

3.galdera : Euskaraz bizi nahi al duzu?

Erantzunak:

BAI: Iñaki, Ana, Koro, Miren.

EZ: Antton, Maria, Silvia, Ines, Lucía, Laura.

Erantzunen azterketa: Erantzunak harrigarriak direnik ezin da ukatu. Euskara ikasle hauetatik erdiak baino gehiagok EZ DU ikasprozesuaren amaieran euskara egunerokoan erabiltzeko asmorik. Gauzak horrela, euskararekiko eta ondorioz euskal bizitza kulturalarekiko desafekzioa eta sakoneko interes falta oso nabaria dela esatea ez dirudi gehiegi esatea denik. Ezezkoa eman duten ikasle hauek ez dute euskara beren egunerokoan txertatzeko bezain erakargarri ikusten, eta ez hori bakarrik; ikasi eta gero euskara “ armairuan “ sartzeko prest daudela erantzunda, euskara beharrezko edo ezinbestekotzat jotzen dutenik ere ezin esan. Balio estatistikorik ez diogu

emango galdetegi honi, baina atentzioa ematen du 30 urteren ostean euskarak, eta ondorioz euskal kulturak, hain lilura eskasa eragiteak.

Bat Soziolinguistika aldizkarian, "Hizkuntz Plangintzak eta Euskalduntze-Alfabetatzea, Elkarren Osagarri " izenburupean honakoa dio Arkaitz Zarragak (Aita Villasante Udal Euskaltegiko irakasleak.) : " hizkuntzaren zailtasuna, denbora, dirua, hizkuntza erabiltzeko aukerarik eza hizkuntza ezagutzeko beharrik eza, kontra dauzkagun elementu garrantzitsuak dira. " (62. zenb, 105-107 orr.). Gure kasuan, Lasarten euskara ikastaroek matrikularen %85-eko dirulaguntza dute Udalaren aldetik eta Usurbilen % 80-koa. Usurbilen gainera euskara kalean erabili daiteke, eta gero eta gehiago Lasarte-orian ere. Hizkuntza ezagutzeko beharra ere badago, lehenengo galderako erantzunek argi erakusten dutenez. Beraz, non aurki daiteke euskaraz bizitzeko motibazio falta horren arrazoia? Jon Sarasuak, Baleike.com aldizkarian jasotako hitzaldian zera dio: euskaraz bizitzea norberak egin behar duen hautua dela, eta gehiago dio: " *borondate bat eskatuko dio, madrildar arruntari gazteleraz bizitzeko eskatzen ez zaion ahalegina, tentsio puntua* ".

Euskaraz bizitzeko motibazio gabezia erakutsi dute hamarretik sei ikaslek. Sei ikasle on adin tartea 39-54 urte artekoa dela kontuan hartuz gero Sarasuaren iritzia kasura egoki datorrelakoan nago: ez dirudi euskara egunerokoan erabiltzeko ahalegin gehigarri bat egin behar izatea oso normala denik, eta euskara egunerokoan erabiltzeko motibazio falta duten sei ikasle hauen kasuan egunerokoan euskaraz aritzeko ahalegin "extra " horretan egon daitekeela ondoriozta liteke.

Hona Jon Sarasuak auzi honen inguruan Baleike.com aldizkarian esandakoa:

"Eta, orduan, zergatik hauta dezakete gure seme-alabek euskaldun izatea? " Jon Sarasuak hainbat arrazoi aipatu ditu. *"Motibazio bat da fluxua-rena. Hau da, aurrekoek eman didatena hartzen dut, horrek nire nortasuna eraikitzen laguntzen dit, eta hurrengoei pasatzea dut gogoko. Denak gara fluxu erraldioen eramale, eta motibazio hori oso sustraitua dago gugan, Zergatik hitz*

egingo dut euskaraz? Aitaren eta amaren hizkuntza delako. Horrek etorkizunean ere eragingo du”.

Beste motibazio bat pragmatikoa dela dio. “Euskara aukeratu dut balio didalako, lana topatzeko, harremanetarako... Egin dezagun euskara beharrezko eta horrela salbatuko da. Diskurtso hori oso ondo dago, baina ez da aski, euskara ez delako beharrezko, eta etorkizunean ere ez da izango”.

Beste galdera interesgarri bat planteatu du Sarasuak: “Zer ematen dit euskarak gaztelarak edo ingelesak ematen ez didatena? Zer biziartzen dit euskarak beste horiek ematen ez didatena?” Galdera horren erantzunean ikusten du Sarasuak itxaropen izpia etorkizunaren zulo beltzean. “Euskarak eskaintzen du harreman mundu bat, sorkuntza mundu bat, mundu estetiko bat, eraikitzen ari den mundu bat, zirkuitu batzuk erderak ematen ez dizkidatenak. Eta hor sortzaile izateko aukera du gazteak, eraikitzeke dagoen mundua delako”. Sarasuarentzat oso inportanteak dira zirkuitu hauek -herrietako elkarteak, bertso eskolak...- .”Zirkuitu hauetan dago gure gakoetako bat. Zirkuitu hauetan ari da erreproduzitzen benetan etorkizunean euskaraz bizitzeko nahimena. Herrietan euskarari itsatsitako kapital sozial hori da. Hor ari da egosten euskaraz bizitzeko motibazioaren erreproduzioa”.

Baina Sarasuaren ustez ahaleginak ez dute ezertarako balio gero hizkuntza horrek ez badu funtzionatzen guregan. Gogora dezagun orain egin dudana inkestaren emaitza: hamar lagunetatik seik ez du euskaraz bizi nahi euskara ikasi eta gero. Sarasuak dio erdararak, telebistatik eta, sekulako gaitasun espresiboa lortu duela, enpaketatuta datorrela, eta hezurretaraino sartuta daukagula: “ Orduan, aldamenean daukagunari edozein esaldi ximple adierazkor esateko euskarak ez digu erdararak bezainbeste balio. Eta, klaro, hizkuntza horretarako da. Hizkuntza ez da amets politiko baterako, hizkuntza da ohekidea maitatzeko, eta bronka botatzeko, eta gure gorrotorik bizienak, gure ironiarik finenak birgeria baten bidez esateko; hizkuntza jolas horretarako da, da ezpata, da orratza, da haria... potentzia bat behar du gure barruan, potentzia espresibo bat behar du gure barruan. Horretan ere badago zeregin handia”.

Sarasuak, beraz, euskara jakin arren euskaraz ez egin nahi izatearen arrazoiak bat baino gehiago direla defendatzen du eta euskalgintzak ezin duela denborarik galdu lehen bait lehen arrazoi horiek egoki identifikatu eta neurriak hartzeko. Puntu honetan, euskaraz bizi nahi izatean edo ez izatean zer nolako pisua eduki dezake balizko euskal hiztunaren abertzaletasunak?

Aurreko galderari erantzunez azaldu ditudan datuek abertzaletasuna zenbat eta handiagoa izan euskararen erabilera orduan eta handiagoa izango dela erakutsi dute. Beraz, Sarasuak proposatutako neurri hauek ez lirateke inondik ere kontrajarriak izango “Txillardegí”-k arestian azaldutako argudioekin. Elkarrekin Joan daitezkeela ondoriozta daiteke: batetik herri kontzientzia eraikiz euskara “ propio “ sentitzeko eta bestetik garai eta pentsakera berrietara egokituz garaian garaiko kultur zein gizarte eskaintza euskalduna eskainiz.

4.go galdera: Euskara ikasteak merezi al du? Erantzuna baiezkoa bada, zeintzuk dira jaso edo bizi dituzun edo bizi izan dituzun onura horiek?

Antton: “ *Sí, qué remedio... lo habla cada vez más gente y para el trabajo también te lo piden cada vez más. Yo soy comercial y hay sitios en que si no sabes puedes perder una venta...*”

Iñaki: “ *Sí, es que es bonito aprender la lengua que es de aquí y que por culpa del Dictador no pude aprender. Me conecta con mis raíces, y además mi mujer y mis hijos son euskaldunes, así que vaya si me merece!* “

Maria: “ *Sí, es que es la lengua de aquí, cómo no va a merecer el esfuerzo... yo soy de Madrid y lo aprendo porque estoy en Donosti. Si estuviera en Barcelona aprendería catalán y si me fuera a Estados Unidos inglés. Ya lo dice el refrán: donde fueres haz lo que vieres...* “

Silvia: “ *espero que sí, sobre todo por el trabajo, que está fatal la cosa .*”

Ines: “ *Bai, eta asko gainera: ezin dut imajinatu euskaraz jakin gabe orain Usurbilen. Euskarari esker jende asko ezagutu dut eta nire autoestimua ere igo egin da. Eta gero lana noski, euskara perfila daukat, eta eskerrak horri !*”

Lucia: “ *Merezi du lanarengatik, bestela ezingo nuke Osakidetzan lan egin.* “

Ana: “ *Neretzat bai. Francok ohostu zidan nire familiaren hizkuntza eta kultura. Nire semeek ikastolan ikasi dute eta ni orain ari naiz, jubilatuta eta gero. Eta ikasi arte ez naiz geratuko.*”

Koro: “ *Bai, herrian asko hitz egiten da euskaraz eta ez badakizu arazo bat da, ni behintzat ez naiz batzutan eroso sentitzen, zeozer erantzuteko gai ez naizenean.*”

Miren: “ *Nola ez, hemengo hizkuntza izanda. Ni euskaraz bizi naiz egunero, bai lanean eta bai etxean, ezin dut besterik imaginatu...*”

Erantzunen azterketa: Oro har, euskararekiko lotura LAN KONTUEK eragindakoa dela dirudi gehienentzat. Beste batzuentzat aldiz integrazio edo nortasun arazoak dira euskara ikastera bultzatu dituztenak. Erantzun batzuetan, aldiz, bi faktoreak aipatzen dira, orpoz-orpo, euskara ikasteko akuillu bailiran. Erantzunok aurreko galderako erantzunekin uztartuz, ikasle gehienek euskararekiko emozio edo afektu gutxi dutela ikus daiteke, ez behintzat LANA edo INTEGRAZIO faktoreetatik kanpo euskara ikasten hasterainokoak.

Antton, Silvia, Lucia eta Korok lanerako euskara beharrezkoa edo behintzat garrantzitsua dela diote eta ondorioz horregatik euskara ikasteak merezi duela. Estatistikoki lau ikasle dira bederatziko talde batetik iritzi hau erakutsi dutenak. Euskara ikasteko motibazio instrumentala dutela nabaria da hemen: Jarrera instrumentalek hizkuntza edo aldaera horretan hitz egitearen ikuspegi pragmatikoa adierazten dute; hizkuntza edo aldaera bat onura ekonomikoarekin edo gizarte-mailan promozio aukerak handitzearekin lotzen bada, hizkuntza horrekiko jarrera instrumentalak garatuko dira. Ohikoak dira jarrera horiek, esate baterako, bigarren hizkuntza bat ikasteko orduan. Hizkuntza gutxituen kasuan, mantentzeko aukera egon daiteke hizkuntza horrek estatusa ematen duen neurrian, arrakasta soziala edo pertsonala izateko aukera handitzen bada, edota oinarrizko ziurtasuna eta biziraupenerako aukera indartzen badira (Baker, 1992: 32).

Euskarari buruzko diskurtsoak

Josu Peralesek honako hau dio euskaltegietako ikasleek euskara ikasteko erakutsi eta azaldu dituzten motibazioen inguruan: *“Helduen euskalduntzea aztertzeke egin diren lanetan, noranzko integratiboa eta instrumentala hartu dira, oro har, kontuan. Eta bistan da noranzko integratiboa instrumentalari gailentzen zaiola. Egia, bestalde, sarri askoan entzuten dela gure artean noranzko instrumentala ari zaiola hurbiltzen noranzko integratiboari. Baina zaila da ziurtasun osoz esaten euskaltegietan dauden ikasleekin egindako azterlanen arabera, motibazioaren noranzko instrumentala, denboraren poderioz, indartzen ari dela integratiboaren kaltetan... nahiz eta hórrela pentsatzeko susmoa badugun”*. (Euskara helduaroan ikasteko motibazioa: hainbat gogoeta. Josu Perales, HABEko teknikaria, 2004).

Peralesen gogoeta 2004an argitaratutakoa da, eta denboraren bilakaerak berak iragarritako susmo horiek berretsi dituela esango nuke, Lasarte-Oria eta Usurbilgo ikasleen kasuan behinik behin. Euskara ikasteak merezi duela diote, baina arrazoitzerako orduan gehiengoak lan egoera hobetzeko instrumentu gisa ikusten du euskararen ikas-prozesua. Ez nuke esango motibazio instrumental hau euskararentzako kaltegarria denik, inondik ere ez, baina motibazio zehatz horren gain eragingo duen politikarik ezean euskarak garaian-garaiko lan eskakizunen mende geratzeko arriskua izango duela ematen du, hau da, arlo administratibo zein Lan Arloko uneko politiken menpe. Kontuan hartu beharko da puntu honetan Euskal Herrian Espainiar Estatuak aurrera daraman eskumen zapuzte politika: Europako Troikaren esanei men egitearen aitzakiarekin azken hamarkadetan euskal eskumenak izan diren alor batzuk indarririk gabe uzten hasi da, batez ere lan arloan, bai publiko eta bai pribatuan. Ondoriozta daiteke beraz lan munduan euskara sustatzeko baldintzak hobetu baino okertu egin daitezkeela datozen urteetan eta euskaltegietako ikasleen motibazio nagusia instrumentala bada, ezin esango dugu, aldaketa nabarmenik ezean, oraingoak baina baldintza hobeak izango dituenik euskalgintzak euskarara jendea hurbilarazteko.

Halere, Mirenek eta Anak euskara ikasteko motibazio afektiboa dutela begibistan geratu da: Mirenek etxean zein lanean euskaraz bizi dela dio, eta are gehiago, bestela ezin duela irudikatu bere burua. Anak Diktadura garaiko

gertakariak ditu present euskara ikasteko garaian, eta ohostu zioten kultura berreskuratzea du helburu. Ildo horri jarraiki Iñakik ere Diktadoreari egotzi dio egun euskara ez jakitea eta alaba eta emaztearekin lotzen duen uztarria dela euskara esan du. Ines eta Mariaren kasuan ezin da esan motibazio afektibo argirik dutenik, baina ezta beren euskararekiko jarrera erabat instrumentala denik ere. Inesek euskarak autoestimua igo diola dio eta gaur egun ezin duela bere burua euskararik gabe irudikatu. Maria jatorriz madrildarra da eta tokian tokikoa ikasi behar dela uste du, hau da, bizi den tokiko hizkuntza zein kultura ezagutzea oinarrizkoa dela uste du: “ *ya lo dice el refrán: donde fueres haz lo que vieres* “. Maria eta Inesen kasuan ondorioz motibazio integratzailea antzematen da beste edozeinen gainetik.

Aipatu dudan motibazio afektiboaren inguruan, Iñaki Martínez de Lunak gai honi buruz esandakoa azpimarratu nahi dut (euskaraz bizi nahi dut hitzaldia, Bergara, 2012): Bertan afektua eta efektuaren arteko harremanaz hitz egin zuen, AED-ek 2010ean egindako ikerketatik ateratako kontzeptua, hain zuzen ere. Martínez de Lunaren esanetan motibazio afektibo hori eduki, badaukagu, baina ez dugu efektibo bihurtzen. Disonantzia kognitiboan gertakari horrek duen eraginaz aritu zen jarraian: horren arabera, gure jarreraren eta portaeraren arteko disonantziak ez ditugu luzaroan mantendu nahi, eta ondorioz, gure portaera aldatu ezean, hau da, euskaraz hitz egiten hasten ez bagara, gure jarrera izango da aldatuko dena. Zertan datza ordea disonantzia kognitiboa? Askotan, nahiz eta jarrera konsistentea eta argia eduki, aurka dagoen jokabidea egiten dugu. Zergatik gertatzen da hori? Ez garelako bakarrik bizi. Taldeak, inguruneak, presionatu egiten gaituelako jokabide zehatz bat egitera. (Jarrerak. Xabier Zupiria, 2008)

Nire galdeketan hamarretik hiruk erakutsi du euskararekiko jarrera afektiboa, eta portzentaiak aintzat hartzen baditugu ehuneko hogeita hamarreko ikasle kopuruaz ariko ginateke. Lasarte-oria eta Usurbilgo kasuak bereiztuko ditut kasu honetan, beste hainbatetan bezala errealitate soziolinguistiko ezberdinak baitaude herri batean eta bestean. Disonantzia kognitibo egoera horren eraginak ahalik eta txikienak izateko, berebiziko garrantzia emango

nioke euskaltegian ikasitakoa kalean erabiltzeko aukera erreala izateari. Bestela esanda, euskararekiko jarrera afektibo/afektibo ideologikoa erakutsi duten ikasle hauei nola eragingo die euskaltegian hainbesteko ahaleginez ikasitakoa kalean erabiltzeko zailtasun oso nabarmenak daudela konturatzeak eta ohartzeak? Usurbil ikuspegi soziolinguistikoa aintzat hartuta herri euskalduna dela esan daiteke, hau da, oro har denda, komertzio zein bestelako zerbitzuetan euskara izan ohi dela gehien erabiltzen den hizkuntza.

Kasu honetan lehen aipatutako disonantzia kognitibo hori emateko baldintzak nabarmen murriztuko lirateke. Lasarte-oriaren kasuan aldiz, kontrakoa gertatzen dela esan beharko dugu: herriko denda, komertzio, kiroldegi eta gainontzeko zerbitzu gehienetan ez dago bermatuta euskararen ezagutza eta beraz gaztelera izango da gehien erabiltzen den hizkuntza. Ondorioz Lasarten bizi diren euskaltegiako ikasle hauek beren afektu hori efektibo bihurtzeko zailtasun objektiboak izango dituzte, horrek dakarren eta aurrez azaldu dudan arriskua bizi-bizirik mantenduz.

Halere, eta egiari zor, Lasarte-oriako euskararen egoerak nabarmen egin duela hobera azken urteetan esan gabe ezin naiz geratu, eta eragile askori esker eman dela aldaketa hori esango nuke. Herriko euskaltegi ezberdinak eta kultur taldeak aipatuko nituzke bilakaera honen motor gisa, hauen artean Ttakun euskarazko kultur taldea nabarmenduz.

5.go galdera: -Gomendatuko al zenioke gertukoren bati euskara ikastea? Arrazoitu zure erantzuna.

Antton: *“ Sí, es que ahora te lo piden para muchas cosas, y si además vives en un pueblo que en su mayoría es euskaldún, pues claro que se lo recomendaría “.*

Iñaki: *“ Claro que sí, ¿tú sabes lo que es pasarte toda la vida sin entender mogollón de cosas que pasan a tu alrededor? es la lengua de aquí, y además ya lo habla toda la gente joven ”*

Maria: “ *Sí, me resulta incomprensible vivir aquí y no saber euskera; además para trabajar es muy importante saberlo* ”.

Silvia: “ *Sí que se lo recomendaría, sobre todo por dos cosas: amistades y trabajo. Si lo sabes todo es más fácil, lo estoy empezando a ver en mis propias carnes éste año...* ”

Ines: “ *Bai, baina esfortzu handia eskatzen du eh? Eta ez da erraza lanetik atera eta euskaltegira joatea, baina halere bai, gomendatuko nioke, kalean asko entzuten da eta lanerako ere garrantzitsua da...* ”

Lucia: “ *Bai, lanarengatik, oso garrantzitsua da Osakidetzan* ”.

Ana: “ *Hori bakoitzak ikusi behar du, nik ez dakit bere sentimenduak nolakoak diren. Nik nire sentimenduak ezagutzen ditut* ”.

Laura: “ *Bai, lanerako garrantzitsua da, gero eta jende gehiago etortzen zait lanera gauzak euskaraz eskatuz* ”.

Koro: “ *Bai noski, niri lotsa ematen dit kalean norbaitekin euskaraz ondo ez hitzegitea, kriston apuroa pasatzen dut; hori bai, gero eta gutxiago...* ”

Miren: “ *Nik dudarik gabe: euskaraz ez badaki gauza pillo bat galduko ditu, nik lehen bezala, eta pena ematen dit ikustea nola jende asko ez den horretaz konturatzen* ”.

Erantzunen azterketa: Euskaraz ikastea guztiek gomendatuko lioke gertuko jendeari. Baina erantzunen arabera gomendio horren atzean LAN FAKTOREAK leudeke batik-bat. Gutxiengoa da bestelako arrazoiren bat azaldu duena, eta hauen artean bat nabarmendu da besteen gainetik: gero eta gehiago entzuten dela kalean esan du batek baino gehiagok, eta nolabait “olatu” horrek bultzatu ditu gertukoak ere euskarara hurbiltzeko animatzera: Berriro ere, salbuespenak-salbuespen (Miren, Ana, eta hein batean Iñaki ere bai) ez dute euskararekiko afekturik erakusten. Euskararen ERABILGARRITASUNA da aintzat hartzen duten faktorea, bai lanerako eta bai eguneroko bizitzan nolabait erosoago sentitzeko.

“ Erdaldunen Euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak “ lanean, (Esti Amorrortu, Ane Ortega, Itziar Idiazabal, Andoni Barreña, , Gasteizen 2009an argitaratua Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen zerbitzu Nagusiaren bidez), euskarak azken hiru hamarkadetan “tresna-balioa “ irabazi duelako pertzepzioa egotea positiboki baloratu zuten, prestigioarekin lotuta dagoelako pertzepzio hau, lan honen egileen esanetan. Euskararen balio instrumentalaren pertzepzio hau pentsaezina zen Euskara normaltzeko hizkuntza-plangintzak egiten hasi zirenean, eta gauzak horrela positibo bezala baloratuko nuke. Ñabardura bat halere: euskararen balio instrumental horren pertzepzioa artifiziala ere suerta liteke hein batean, euskara derrigorrezkoa izan arren lan-postu zehatz batzuetara iristeko iritsi ondoren euskara ez baita normalean laneko hizkuntza izaten...

Definitu dezagun baina *Hizkuntza-aurreiritzia*: hizkuntza edo aldaera zehatz baten inguruan orokortu diren uste edo sinesteak izango dira.

(Auñamendi entziklopedia, Hizkuntza jarrerak 2010).

Aurreiritziak balio-judizio bihurtzen dira egitate diren ala ez kontuan izan gabe eta hizkuntzetatik hiztunenganako jauzia egiten dute.

Aurreiritziek jarreretan dute eragina, eta mesedegarriak edo kaltegarriak izan daitezke.

Tusonek dioenez (Tusón, 1996: 18), balio-judizioek sortzen dituzte hizkuntzekiko aurreiritziak, hau da, egitate-judizio neutroak izatetik norberaren esperientzian, eta esperientzia kolektiboan oinarritutako judizioetara igarotzen dira, norberaren gustuan edo jasotako heziketan oinarrituta. Hizkuntzen inguruko ideiak, iritziak edota judizioak norbanako guztiengan daude. Baina aztertu behar da judizio horiek egitateak diren ala ez, eta nola, sarri, oinarri faltsuetan finkaturik balio-judizio bihurtzen diren. Kontuan hartu beharreko lehen datua: hizkuntzen inguruko iritziak norberaren hizkuntza abiapuntutzat hartuta garatzen dira. Beraz, izatekotan ere, norberaren hizkuntzarekiko iritziak liriateke, ez berezko egitate-judizioak. Beraz, aurreiritziek norberaren argakia proiektatzen dute eta horien bitartez, munduaren eta pertsonen inguruko jarrerak eratzen dira. Egile horren iritzi, publiko egiten duguna gara, bereziki esaten duguna eta aurreiritzi horiek jokaerak baldintzatuko dituzte.

Gainerako kasuetan bezala, hizkuntzekiko aurreiritziek balio positiboa edo negatiboa izan dezakete: gustuko dut/ez dut gustuko, ederra/itsusia, erraza/zaila...Hizkuntzen jarreretan gertatu ohi den modura aurreiritzi horiek ez dute eragiten objektuen gainean soilik; alderantziz, objektu edo gai jakin horrekin lotura duten gizaki edota giza taldeengan islatzen diren proiektzioak dira, eta hor sortzen dira benetako arazo etikoak (Tuson, 1996: 19).

Tusonen arabera, hizkuntzen inguruko aurreiritziak honako taldeetan bil daitezke, besteak beste:

-Hiztun-kopuruaren arabera: bereizketa kuantitatiboa eginez, hau da, hiztun-kopuru handia/txikia.

-Kalifikatzaile subjektiboen arabera: goxoak, ederrak, argiak, errazak...

-Egokitasunaren arabera: kultura-hizkuntzak, nazioartekoak, literaturarako egokiak, lege-testuetarako aproposak, maitasunerako ezin hobeak, zientzia eta teknologiarako goi-mailakoak, sentimenduak adierazteko bereziak, turismorako baliagarriak edo lan-mundurako ezinbestekoak.

Sailkapena baliatuz, hizkuntzak eta hiztunak balioarekin edo balioezarekin lotzen dira. Horrela, sarri, ezaugarri ez hain positiboekin bat datozenak kalifikatzaile negatiboekin uztartuko dira.

Nola kalifika genitzake nire ikasleek euskararekiko erakutsitako aurreiritziak? Jasotako erantzunek ez digute lehen bi aldagaien erantzunik eman, baina bai egokitasunari dagokiona. Euskararen Lan-munduko pisua garrantzitsua dela uste dute Mariak, Silviak, Inesek, Luciak, Laurak eta beharbada Anttonek ere bai, nahiz eta azken honen erantzuna bestela ere interpreta daitekeen. Euskararekiko sentimenduzko jarrera positiboa azaldu dute bestalde Mirenek, Anak eta Iñakik. Koro ez genuke talde honetan sartuko, bere erantzunetik euskararekiko jarrera positiboa ondorioztatzea ez dudalako zuzena ikusten. Baina lan-arloan euskarak ikasle hauen gainean azaldu duen pisuak eta beste hiru ikasleengan euskarak eragiten duen sentimendu/afektu

positiboak, biek ala biek euskararen gaineko aurreiritzi positiboa erakusten dute Tusonen Egokitasunaren aldagaia aintzat hartzen badugu.

6.go galdera: Euskara klaseak doanekoak izan beharko lirateke edo ez? arrazoitu zure erantzuna.

Antton: “ *Sí, si te piden euskera casi para cualquier cosa tendría que ser gratuito. Si no, ¿Cómo lo aprende el que no pueda pagárselo?* ”.

Iñaki: “ *Sí, es la lengua de aquí, si queremos que todo el mundo hable euskera habrá que facilitar las cosas* ”.

Maria: “ *No sé, pero te diría que no... al que algo quiere, algo le cuesta, si te lo pagan todo igual no aprovechas todo lo bien que lo aprovecharías si lo pagaras tú... hay que ayudar, pero no pagarlo todo*”.

Silvia: “ *Sí, debería ser gratuito. Bastante cuesta ya el esfuerzo de aprendérselo como para que además tengas que gastarte un pastón. Si no hubiera subvenciones, yo no estaría aprendiendo, así de claro...* ”.

Ines: “ *Bai, gure hizkuntza da eta ahalegin handia egiten ari naiz ikasteko. Niri enpresak ordaintzen dit eta horregatik ikasten dut, bestela ez dakit zer egingo nukeen...*”.

Lucia: “ *Nire ustez bai. Lanerako derrigorrezkoa bada, klaseak doan izan beharko lirateke* ”.

Ana: “ *Doan ez, bestela potrojorran ibiltzen dira eta. Diru publikoa da eta ondo gestionatu behar da*”.

Laura: “ *Bai, bestela jende askok ezingo du ikasi dirurik ez daukalako, edo ez duelako gastatu nahi. Asko ezagutzen ditut klaseak doanezkoak ez direlako ikasten ez dutenak*”.

Koro: “ *Bai, bestela askok ez lukete ikasiko* ”.

Miren: “ *Horixe baietz, AHT egiteko badago dirua, ba euskara ikasteko ere bai orduan, ez?* ”.

Erantzunen azterketa: Deigarria da doakotasunaren aurkako iritzi bakarrak Ana eta Mariarenak izatea, biak ala biak arrazonamendu bera erabiliz gainera: Norberak ordain beza bakoitzak behar duena. Gainontzekoak doakotasunaren aldekoak dira, hein batean suposa zitekeen bezala. Zergatiak aztertzerakoan hausnarketa bat: inork gutxi esan du doakotasuna bertako hizkuntza delako izan beharko zatekeela. Gehiengoak, euskararekiko gertutasun gehien azaldu dutenek ere bai, (Iñaki eta Maria, kasu) doakotasunaren arrazoi nagusia LAN MERKATUAREN BILAKAERAN kokatu du: lanerako beharrezkoa bada, euskararen ikaskuntza doakoa izan beharko da. Erreflexio honek beste batera garamatza; eta lan merkatuaren bilakaerak datozen urteetan euskararen erabilpena edo beharra gutxituko balu? Gehiengoaren esanetan euskararen irakaskuntza ez litzatekeela orduan doakoa izan beharko ondoriozta daiteke.

Nabaria da Anttonek, Inesek, Silviak eta Luciak euskararekiko duten desafekzioa. Ez dute hizkuntza propietzat eta galdera honen erantzunean ere nabari zaie sentimendu hau. Doakotasuna edo doakotasun eza ez dute inondik ere euskara beraien herrietako kaleko hizkuntza delako planteiatzen, guztiz alderantziz, erabilgarri/derrigorrezko zaien heinean jotzen dute alde batera edo bestera. Erantzun hauek euskararekiko dituzten aurreiritziak ere erakusten dituztela esango nuke. Hona hemen Javier Tuson-ek “ Mal de Llengües. A l'entorn dels prejudicis lingüístics, “ (1996) liburuan aurreiritziek hizkuntza baten bilakaeran izan dezaketen pisuaz zioena:

“En grados diversos, el perjuiciolingüístico (inocente o perverso) no es otra cosa que una manifestación de racismo, orientado ahora hacia las lenguas y los hablantes.El «ombliguismo» lingüístico puede llevar a la exaltación de la propia lengua como la única posible y razonable, y ésta, sin saberlo y sin pedirlo, pasará a desempeñar toda una serie de funciones para las que no estaba preparada. De ser un instrumento neutro para la comunicación, la expresión del pensamiento y la consolidación de los humanos como seres inteligentes, se verá obligada a convertirse en estandarte, en herramienta de dominio e incluso de exterminio respecto de otras lenguas. Porque está a la orden del día que una lengua, si es considerada más apta que otras, y si el

poder la acompaña, puede producir la muerte de muchas lenguas; puede ser impuesta por la fuerza y, de esta forma, tornarse un instrumento de silencio. “

Ikusitakoak ikusita eta 1996-tik hona soziolinguistikak izan duen bilakera kontuan hartuko bagenu, kolokan jarri beharko genuke hizkuntzen ustezko izaera neutral hori. Erabileraren arabera, eta Estatuaren hizkuntza politiken arabera hizkuntza batek beste bat eraso dezake, desagerrarazteraino askotan, edo kontrakoa ere gerta daiteke, beti ere hizkuntza gutxitua bada behar duen Estatua lortzearen aldeko hizkuntza politikak bideratuz gero. Lehen aipatutako lau ikasle hauen erantzunak ikusita, Administrazioa bultzatzen ari den hizkuntza politika behar bezain eraginkorra ote den zalantzan ere jarriko nuke: argi dago motibazio sinboliko/afektiborik ez diela sorrarazi ikasle hauei.

Tuson-ek bi motatako aurritzi ezberdindu ditu arestian aipatutako “ *Mal de Lengües. A l'entorn dels prejudicis lingüístics, “ (1996)* liburuan: ezjakintasunaren ezpalekoak izango lirateke batzuk, eta gogo gaiztoaren harikoak besteak. Nolanahi ere, arrazoibidearen zentzuetik at daude biak. *“Podemos, pues, entender que un «prejuicio lingüístico» es una desviación de la racionalidad que, casi siempre, toma la forma de un juicio de valor o bien*

sobre una lengua (o alguna de sus características), o bien sobre los hablantes de una lengua (en tanto que hablantes). Y se trata de un prejuicio generalmente dictado por la ignorancia o por la malevola desazón que nos producen todas aquellas cosas y personas que son diferentes a nosotros”.

Borondatezko judizio bat ere egiten du hemen, hizkuntza bakoitzari legokion Estatua aitortu beharko litzaiokeela aditzera emanez. Nik elkarrizketatu ditudan ikasleetatik erator al daiteke bi aurreiritzi hauetakoren baten zantzurik? Ni baiezkoan nago, eta bietako zantzuak aurki daitezkeela uste dut gainera. Silviak esaterako honakoa esan du: *“ Sí, debería ser gratuito. Bastante cuesta ya el esfuerzo de aprendérselo como para que además tengas que gastarte un pastón. Si no hubiera subvenciones, yo no estaría aprendiendo, así de claro... “*

ez dut uste bere enfasi espresioak doakoak direnik. Euskararen egoera soziolinguistikoarekiko interesik ezin eskatu dakioke euskara ikasten dabilen

inori; horretan interesa duenak emango du aditzera eta egikarituko ditu Euskaltegiaren laguntzaz interes hori asetzeko beharrezko neurriak. Baina ezjakintasun soziolinguistiko horretaz haratago, “*así de claro* “ espresioaz argitzen du euskarari doakotasuna edo diru-laguntzak murriztuz eta zer esanik ez kenduz gero berak izango lukeen erantzuna. Zalantzarik gabe, eta berak erantzunean erabilitako indar hori interpretatzerakoan, euskara pikutara bidaliko lukeela deritzot. Tuson-ek dioen gogo-gaiztoaren aurreiritziak erakusten al ditu Silviak erantzuna horrelako ñabardura indartsuez lagunduta? nik ezetz esango nuke, erantzun honek ez baitu nire ustez euskararen doakotasunaz haragoko interpretaziorik egiteko adina informazio biltzen. Halere, inkesta modu orokorrean hartuko bagenu bestelako interpretaziorik egitea ere posible izango litzateke, batez ere Luciaren kasuan. (ikusi bestela kasurako Luciak galdetegi honetako bigarren galderari emandako erantzuna).

7.go galdera: Aipatu euskarak sorrarazten dizkizun sentimendu edo sentsazio ezberdinak. (hemen ere guztiei argibidetxo bat eman diet, honako sentimendu ezberdinak bistaraziz: poza, harrotasuna, frustrazioa, gorrotoa, nahia, ilusioa, antsietatea, beharra, komunitate bateko partaidetza sentimendua, inposaketa, eta justizia.)

Antton: “ *Lo que más me provoca el euskera es agobio, pero además de eso también me aporta calma. Es difícil de explicar, es según el día y cómo me haya sentido. Es satisfactorio ver que voy progresando, pero luego vas a la calle y no te atreves a decir nada...*”.

Iñaki: “ *Me eleva la autoestima, estoy más conectado conmigo mismo, no sé cómo decirlo: yo quiero ser euskaldún, y cada paso que doy es un paso más hacia mi objetivo, así que hoy por hoy no me cuesta, al revés* ”.

Maria: *“ Me gusta la cultura vasca, el baile, el deporte rural, la nobleza del vasco, y el euskera es mi pasaporte a todo ello. Cuesta venir al euskaltegi pero me compensa con creces ”.*

Silvia: *“ Cuando empecé a estudiar ilusión, luego desesperación, y ahora de nuevo ilusión, porque estoy empezando a hablarlo fuera del euskaltegi. Es una gozada ”.*

Ines: *“ Neretzat oso garrantzitsua da, oso harro nago euskaraz hitz egiteaz ”.*

Lucía: *“ Niri ya nekea eragiten dit, aspertuta nago ya euskararekin. Urte asko dira ya eta ez dakit ikasten jarraituko dudan perfila lortzen badut...”.*

Ana: *“ Ni oso harro nago euskara ikasteaz. Ni euskalduna nintzen txikitari eta diktadurak lapurtu zidan euskara. Lehen ere esan dizut, nire amak bezala hil nahi dut, euskaraz ”.*

Laura: *“ Orain pozik nago euskararekin, baina lehengo urterarte koñazo bat zen. Nik lanerako behar dut, eta hor ibili naiz ikasi eta ikasi baina emaitzak ez nituen ikusten. Aurten bai, orduan oso pozik nago ”.*

Koro: *“ Euskara jakiteak poza ematen dit, ez da erraza izan niretzat, eta gero eta konfiantza handiagoa daukat jendearekin hitz egiteko. Harro nago euskara ikasten egin dudan esfortzuekin, eta oraindik geratzen zait egiteko...”.*

Miren: *“Nik berandu ikasi nuen euskeraz, baina oso harro nago, euskaldun bat gehiago naiz orain. Euskeraz bizi naiz, eta horrek poza ematen dit, eztaikit nola esplikatatu, nere hizkuntza da euskera, horixe ”.*

Erantzunen azterketa: Oro har, harrotasun eta poztasun sentimenduak eragiten dizkie euskarak; harrotasuna euskal kulturarekiko gertutasun gehien duten ikasleen artean eta poztasuna gainontzekoei. Aipagarria da iritzi negatibo bakarra atera dela, Lucíarena hain zuzen ere. Anttonek euskarak itolarria

eragiten diola esan du, baina baita pakea ere, sentimendu nahasiak azaldu ditu euskararekiko.

Deigarria da euskara batik-bat lan arloan hobetzeko ikasten dihardutela dioten ikasle hauen artean euskarak harrotasun eta poztasun sentimenduak eragitea. Zera ondorioztatu daiteke: haserako helburua bestelakoa izan arren, ikasprozesuak berak euskararekiko nolabaiteko afektua eta gertutasuna sortu diela. Hasera bateko motibazio pragmatikoa askotan bestelako helburu ere bihurtu dela esan daiteke, eta erantzunak ikusita, motibazio integratzailea pragmatikoa bezain garrantzitsu bilakatuz joan dela, ikasle hauen kasuan bederen. Prozesu honen bilakaera modu kontziente zein inkontzientean eman dela dirudi: lehenengo kasua harrotasuna sentitzen dutenek biziko lukete, eta bigarrena poztasuna sentitzen dutela esaten dutenek, ez baitira gai izan poztasun horren nondik norakoak azaltzeko. (euskal komunitatean integrazio sentsazioa izatea, gertuko euskaldunen beraiekiko pertzepzio aldaketaren bat nabaritzea, seme-alaba, senar edo emaztearekiko harremana aldatzea,...).

Hala ere bestelako irakurketarik ere egin daitekeelakoan nago: Anttonek, Luciak eta Laurak, ñabardurekin bada ere euskararekin eta beraien egunerokoan suposatu dien ahaleginarekin nekatuta daudela edo egon direla dirudi. Anttonek honakoa esan du: *“ lo que más me provoca el euskera es*

agobio... luego te vas a la calle y no te atreves a decir nada... “. Laurak lehengo urterarte euskara *“coñazo “* bezala definitu du, ondoren aurten bere sentsazioa ezberdina dela azaltzeko. Luciaren kasuan are nabariagoa da euskararen ikasprozesuak eragindako sentimendua; aspertuta dagoela dio euskararekin, nekea eragiten diola, eta beharrezko zaion Hizkuntza Profila ateraz gero zalantzan utzi du ikasprozesuarekin jarraitzea.

Hiru kasu hauetan lan honetako bigarren galderako erantzunen azterketan atera den kontzeptu bat errekueratu nahi nuke: Hizkuntza gutxituekiko jarrerak hizkuntza nagusietako hiztunen aldetik. Azken hauen jarrera egoki azaltzen du honako pasarte honek: (Bernak Joan i Marik , Treballar Actituds Linguístiques liburuatik aterea):

Zerbitzaria. Buenas noches. ¿Qué queréis tomar?

Miquel. Nik pizza bat... *lau urtaro bat.*

Zerbitzaria. Si no hablamos en castellano, me parece que no nos vamos a entender.

Miquel. *Lau urtaro bat.* Ez da ulertzeko hain zaila!

Toni. Ha pedido una cuatro estaciones. Ez gara hizkuntzarengatik haserretuko...

Zerbitzaria. (Nesketako bati) “Y por aquí?

Joana. Para mí una *cuatro* quesos. Es la pizza que más me gusta.

Manuela. Nik *begetala* nahi dut, tipularik gabe.

Zerbitzaria. Otra vez! A ver si os enteráis que soy de Sevilla.

Manuela. Eta ni Cadizekoa, eta zer?

Miquel. (Lagunei isilka) Honek pentsatuko du kanpokoek ezin dutela katalana ikasi. Bat asto samarra delako ez da pentsatu behar denak astoak direnik!

Toni. (Deseroso) Ha pedido una *vegetal* sin cebolla.

Joana. Podríais ayudar un poco, que el pobre hombre igual no nos entiende.

Zerbitzaria. Lo he entendido perfectamente, pero me toca la pera que no hablen en castellano cuando se dirigen a mí.

Miquel. (Lagunei isilka). Honek uste du Olivares-eko konde-dukea dela».

Joan i Marik-ek katananarekiko erdaldunen jarrera islatzeko baliatu du goiko elkarrizketa, baina gurerako ere balio duela uste dut. Zehazki, eta Luciaren erantzunari erreparatuta argi ikus daiteke bere euskararekiko jarrera lanaren baitakoa dela, eta, beraz, hein handi batean “ behartua “ ikusi duela bere burua euskara ikastera. Badirudi sentitzen duen euskararekiko asper eta neke hori euskararen benetako edo behar intimo/sinboliko baten gabeziaren ondorioa izan daitekeela. Martinez de Lunak euskara ikasteko 3 motibazio identifikatu dituela esan dut (begiratu Sarrera-n), eta mendeko hizkuntzak ikasteko eta berauek erabiltzeko prozesua aurrera eramateko ikasprozesua abian jartzean maila goreneko motibazioak behar direla aipatu du. Eta gehiago ere bai; Martinez de Lunaren ustean askotan motibazio sinbolikoak ez dira nahikoa izaten inguruneak ezartzen dituen baldintza eskasak gainditzeko eta

egoera horietan ikas-prozesuak hasi eta eusteko zein erabilerarako prozesuek porrot egin ohi dute.

Luciaren ikasprozesurako motibazioa ez da maila gorenekoa: erabat instrumentala da, ez du euskararekiko bestelako afektu edo motibazio sinbolikorik erakusten. Egoera honi kalean hitzegiteko eta beraz ikasitakoa praktikan jartzeko dituen zailtasun objetiboa gehitzen badiogu, hau da, inguruan erabilerarako dauden baldintza eskasak, hobeto ulertuko Luciak berak aipatu duen neke eta asper sentrazioa. Bi baldintza hauen batuketak eragindakoa dela esango nuke, honakoagatik: erabilerarako zailtasun objetiboak gainontzeko ikasleek ere badituzte, eta Luciak ez bezala ez dute euskararekin nekatuta eta aspertuta daudela esan. Guztiz bestela: Iñakik zera esan du:

“yo quiero ser euskaldun, y cada paso que doy me acerca un poco más hacia mi objetivo, así que hoy por hoy no me cuesta, al revés. “

Iñaki eta Lucia Usurbilen bizi dira biak ala biak, ondorioz ezin da esan batzuk euskara kalean erabiltzeko besteak baino zailtasun handiagoa edo txikiagoa duenik. Beraz, euskarak eragiten dizkien sentimendu ezberdinak azaltzeko ikasteko duten motibazio ezberdinetan egon daiteke azalpena; motibazio instrumentalaren eraginkortasunak ez dirudi motibazio sinbolikoa bezain eraginkorra denik.

Luciaren kasuan gainera lehen ere esan du berak ez duela kalean euskaraz aritzeko borondaterik, hau da, bere hizkuntza gaztelera dela eta bere horretan jarraituko duela. Luciaren jarrera euskararekiko arrotza dela esango nuke, ez baitu euskara hizkuntza propio bilakatzeko motibaziorik izan ikasprozesua hasi zuen unean, eta ikasprozesua bera ere ez da eraginkor suertatu bidean “sentimendu “ hori pizterako garaian.

Ikusten denez sentimendu eta sentrazio ezberdinak eragiten eta sortzen dizkie euskarak, baina sentimendu hauen garrantziaren pare jarriko nuke euskararen kale erabilera. Lasarte-orain esaterako ez da posible orainez-orain euskara hutsean bizitzea; lehen aipatu ditut ikasleoi erabilera ezintasun honek ekar diezazkiekeen galerak, eta euskara lehen hizkuntza dutenen kasua ere aipatu nahiko nuke labur bada ere. Euskaldun zaharrok gure hizkuntza

gutxiestera garamatza askotan kale-erabilera eskas edo behintzat ez-nahiko horrek: goizeko kafe hutsa erdaraz eskatu behar dugu oraindik gehiegitan, eta baita Kiroldegiko txartela egiteko eskakizuna ere. Bi egiteko simple hauek ere egiteko ez al du ba balio euskarak? Euskararen Estatus falta hori sumatzen du euskaldun zaharrak eta Txepetxek aspaldi aipatutako *autogorrotoa*-ren teoriara garamatza horrek; Norberaren hizkuntza ezgauza bihurtu denean, eta hizkuntza hori nork bere gabezi eta madarikazioen iturritzat jotzen duenean, ondorioa autodesegilea izango dela, alegia. Ez zait zilegi iruditzen ondorioz egoera soziolinguistiko makur baten erantzunkizuna hiztunen bizkar botatzea, horrelako hiztunak egoera horren efektu eta biktima hutsak direnean. Hiztunak eragileak ere izan daitezke hizkuntza-komunitatean, baina eragile bezain efektu eta ondorio ere bai.

8.go galdera: Ados al zaude Erakunde Publiko ezberdinak euskalduntzeko Eusko Jaurlaritzak azken bi hamarkadetan abian jarri dituen neurriekin, eta zehazki, lan-postu ezberdinak euskara-profilekin hornitzearekin?

Antton: “ no creo que la solución sea obligarnos a todos a saber euskera para trabajar en la administración. Y además hacerlo contrarreloj, sin plazos razonables para aprenderlo. Lo importante es hacer bien el trabajo, y el castellano lo entendemos todos “.

Iñaki: *“sí, aquí se habla euskera y claro que hay que exigirlo. Pero tampoco hay que pasarse. Si eres buen médico eres buen médico, con euskera y sin euskera. Habría que animar a aprenderlo pero no obligar, creo yo...”*

Maria: “estoy de acuerdo, pero creo que lo están haciendo a lo bestia, sin que dé tiempo a aprenderlo. Y el trabajo está antes que el euskera, mal que nos pese, pero no se puede echar a la gente por no tener Perfil Lingüístico.”

Silvia: “estoy a favor de que poco a poco en los hospitales se hable euskera, pero no puede ser que un médico siendo mejor que otro se quede fuera de Osakidetza por no tener Perfil Lingüístico. Hay que valorar otras cosas antes del euskera, la capacitación profesional debería ser más importante.”

Ines: “Orain alde nago, kostatu zaidanarekin bigarren perfilla ateratzea! Baina oso gaizki pasa nuen duela bi urte, oposaketetan. Orain besteek pasa dezatela, nik kostata lortu dut.”

Lucia: “ez zait ondo iruditzen. Denok dakigu erdaraz, eta gaixo baldin bazaude zer nahiago duzu? Mediku on bat edo euskaraz jakin arren hain ona ez den bat? Nik ez daukat dudarik, eta uste dut gehienok berdin pentsatzen dugula...”

Ana: “Ondo iruditzen zait, euskaldunak gara eta udaletxean euskaraz egin nahi dut. Hemengo hizkuntza euskera da ez? Ba orduan euskeraz hitz egin nahi badut eskubidea daukat. Erdaraz hitz egin nahi duenak baldin badauka, nik ere badaukat euskaraz hitz egiteko ”.

Laura: “Niri ondo iruditzen zait, baina ez orain bezala. Nik ospitalean lan egiten dut, eta euskarak puntu asko ematen ditu, uste dut gehiegizkoa dela ”.

Koro: “ Ondo iruditzen zait, zertarako ari gara euskara ikasten, gero administrazioan erdaraz hitz egiteko? Nire aitaginarreba euskalduna zen, Oriokoa, eta ez zuen nahi izaten medikura joatea. Oso gaizki pasatzen zuen, gazteleraz oso gutxi zekien eta. Eta hori ez da justoa ”.

Miren: “ Oso ondo, baina ez dute administrazioa euskaldundu nahi. Kriston jende pillak dago lanean euskaraz hitzik jakin gabe eta ikasteko inongo intentziorik gabe gainera. Politikoei nahi dutena esango dute, denak dira oso euskaltzaleak, baina ez dute benetako aurrerapausurik eman nahi. Ez da normala Ertzain gazteak egotea euskararik gabe, baina berdin die, argi dago ”.

Erantzunen azterketa: Anak, Korok eta Mirenek euskal hiztunekiko enpatia erakutsi dute, eta Ana eta Mirenen kasuan baita euskal herritar izaeraren kontzientzia ere. Gainontzekoen erantzunak argiak bezain bai-bainakoak izan dira: la inor ez da espreski erakunde publikoen euskalduntzearen aurka agertu, (Lucia da salbuespen bakarra) baina erantzunen irakurketa zehatzago batek akaso kontrakoa erakusten digu:

Euskara profesionaltasunarekin kontrajarri du askok, bien arteko balizko inkompatibilitatea salatuz eta euskara arloan-arloko ezagutza akademikoen izenean gutxietsiz. Ez dute euskal hiztunaren euskaraz egiteko ezintasunaren inguruan inolako hausnarketarik egin, eta zer esanik ez euskaraz artatuak izateko eskubidearen inguruan. Zera ondoriozta daiteke: beraien esku balego, euskaldunok gazteleraz egin beharko genuke beti, eta gainera kexatzeko inolako arrazoirik ere ez genuke izango, beraien ustean egoki artatuak izango ginatekelako gaztelera hutsean sendagile “ profesionalenen “ eskutik.

7.- EMAITZEN ONDORIO BATERATUAK:

Buruntzaldeako AEK-ko ikasleen motibazioa denboran zehar aldatzen joan dela eta aldatzen doala uste dudala aitortu dut lan honen haseran, eta gaur egun motibazioa hein handi batean instrumentala delakoan nagoela. Horrela balitz zein izango litzateke ikasle hauen euskararekiko jarrera? Maite al dute euskara? Edo beraien denbora lapurtzen dien behin-behineko buruko mintzat dute hartuta?

Planteiatu dudan bigarren hipotesia euskara inposatu egin zaien hizkuntza gisa sentitzen duten edo ez ikustea izango da. Goazen beraz lehenengo hipotesiarekin:

Instrumentala al da euskara ikasteko duten motibazioa?

Galdera hau erantzuteko oinarrian bi ikasle profil aurkitu ditudala esan behar dut: batetik motibazio afektibo argia erakutsi dutenak euskararen ikaskuntzarekiko eta bestetik motibazio afektibo hau erakutsi ez dutenak. Euskarak eragiten dien sentimendua zein den galdetu diet eta goian aipatutako bi ikasle profil ezberdin daudela baieztatuko nuke. Ikusi bestela jasotako erantzunak:

Euskararekiko afektua erakutsi duen taldea:

Iñaki: *“Me eleva la autoestima, estoy más conectado conmigo mismo, no sé cómo decirlo: yo quiero ser euskaldún, y cada paso que doy es un paso más hacia mi objetivo, así que hoy por hoy no me cuesta, al revés”.*

Maria: *“Me gusta la cultura vasca, el baile, el deporte rural, la nobleza del vasco, y el euskera es mi pasaporte a todo ello. Cuesta venir al euskaltegi pero me compensa con creces”.*

Ines: *“Neretzat oso garrantzitsua da, oso harro nago euskaraz hitz egiteaz”*

Ana: *“Ni oso harro nago euskara ikasteaz. Ni euskalduna nintzen txikitan eta diktadurak lapurtu zidan euskara. Lehen ere esan dizut, nire amak bezala hil nahi dut, euskaraz”.*

Miren: *“Nik berandu ikasi nuen euskeraz, baina oso harro nago, euskaldun bat gehiago naiz orain. Euskeraz bizi naiz, eta horrek poza ematen dit, eztaikit nola esplikatatu, nere hizkuntza da euskera, horixe”.*

Koro: *“Euskara jakiteak poza ematen dit, ez da erraza izan niretzat, eta gero eta konfiantza handiagoa daukat jendearekin hitz egiteko. Harro nago euskara ikasten egin dudana esfortzuekin, eta oraindik geratzen zait egiteko...”.*

Hona, aldiz, euskararekiko afekturik erakutsi ez duen taldeko partaideen erantzunak:

Antton: *“Lo que más me provoca el euskera es agobio, pero además de eso también me aporta calma. Es difícil de explicar, es según el día y cómo me haya sentido. Es satisfactorio ver que voy progresando, pero luego vas a la calle y no te atreves a decir nada...”.*

Silvia: *“Cuando empecé a estudiar ilusión, luego desesperación, y ahora de nuevo ilusión, porque estoy empezando a hablarlo fuera del euskaltegi. Es una gozada “.*

Lucía: *“Niri ya nekea eragiten dit, aspertuta nago ya euskararekin. Urte asko dira ya eta ez dakit ikasten jarraituko dudan perfila lortzen badut...”.*

Laura: “

Orain pozik nago euskararekin, baina lehengo urterarte koñazo bat zen. Nik lanerako behar dut, eta hor ibili naiz ikasi eta ikasi baina emaitzak ez nituen ikusten. Aurten bai, orduan oso pozik nago ”.

Lehenengo taldekoek hainbat ezaugarri erakusten dituzte; guztiek erakutsi dute honako hauetakoren bate do gehiago: euskaldun izateko nahia, euskal kulturarekiko, herri kirolekiko, edo euskal dantzarekiko gertutasuna eta beraien parte sentitzeko prestutasuna, euskara jakin eta erabiltzeagatik harrotasuna, euskaldun sentitzeagatik poztasuna, edo euskara hizkuntza propio duelako sentimendua.

Bigarren taldekoek aldiz honako ezaugarri hauek erakutsi dituzte; Itolarria euskararen ikasprozesuan, beldurra ondoren kalean erabiltzeko, itxaropen falta, asper-sentsazioa, edo nekea.

Itxuraz, eta erantzun hauek modu isolatuan hartuko banitu, ondorioa nahiko argia izango litzateke: hamarretik sei ikaslek euskara ikasteko motibazio afektiboa izango luke eta beste laurek instrumentala izango lukete, azken hauek ez baitute euskararen edo euskararen ikasprozesuan euskararekiko gertutasunik edo euskara beraien bizitzako egunerokoan bizitzeko zantzurik erakutsi.

Baina beste galdera batzuen erantzunak ikusten baditugu, goiko ondorioak kolokan jarri beharko lirateke. Esaterako, Euskara klaseak doanekoak izan beharko liratekeen ala ez galderari, honakoa erantzun diete ustez euskararekiko afektu sentimendua erakutsi duten taldekoek:

Iñaki: *“Sí, es la lengua de aquí, si queremos que todo el mundo hable euskera habrá que facilitar las cosas “.*

Maria: *“ No sé, pero te diría que no... al que algo quiere, algo le cuesta, si te lo pagan todo igual no aprovechas todo lo bien que lo aprovecharías si lo pagaras tú... hay que ayudar, pero no pagarlo todo”.*

Ines: *“Bai, gure hizkuntza da eta ahalegin handia egiten ari naiz ikasteko. Niri enpresak ordaintzen dit eta horregatik ikasten dut, bestela ez dakit zer egingo nukeen...”.*

Ana: *“Doan ez, bestela potrojorran ibiltzen dira eta. Diru publikoa da eta ondo gestionatu behar da”.*

Koro: *“Bai, bestela askok ez lukete ikasiko”.*

Miren: *“ Horixe baietz, AHT egiteko badago dirua, ba euskara ikasteko ere bai orduan, ez?”.*

Maria ez dago ados euskararen doakotasunarekin, eta ezta Ana ere; eta Inesek, euskara bere hizkuntza dela dioen arren, enpresak ordaintzen diolako ikasten ari dela esan du, eta horrela ez balitz, ez dakiela jarraituko zukeen ala ez. Koherentziarik ba al du euskara propioa duela esateak eta ondoren

enpresak ordainduko ez balio ikasiko zukeen ala ez zalantzan jartzea? Propio sentitzeak egunerokoan euskara bizitzea dakar, eta euskaraz bizitzea ere baietz esango nuke. Inesi enpresak ordaintzen dizkio euskara klaseak, hau da, lanerako beharrezkoa du edo izan dezake etorkizunean. (geriatría langilea da Usurbilgo Udalarekin Hitzarmena duen enpresa batean). Ez du momentuz euskara profilaren beharrik, baina badaki etorkizunean lan-zerrendak berriro irekitzen badituzte arazoak izan ditzakeela lanpostuari bere hortan eusteko. Zera esango nuke: bere euskararekiko jarrera batez ere instrumentala dela, balizko lan egoera zehatz bati egoki aurre egitean duela jomuga, euskararekiko afektuan baino.

Haserako seiko taldetik Maria kenduko bagenu bosna lagun geratuko lirateke bi taldeetan. Baina erantzunak aztertuz jarraitzen badugu itxuraz euskararekiko afektua erakutsi duten ikasle horien benetako motibazioa eta euskararekiko jarrera zein den zehatzago ikusten da. Euskara ikastearen arrazoiak galdetu diedanean Iñakik “lotsa” ematen diola euskaraz ez jakitea esan du; bere emazte zein bere bi alabak euskaldun petoak direla eta baduela garaia berak ere euskaraz aritzeko. Kontuan hartu behar da Iñaki Usurbilen bizi dela eta 61 urte dituela. Usurbilen euskararen kale erabilera ohikoa da eta posible da egunerokoan euskaraz bizitzea. Iñakiren kasuan, euskararekiko afektua baino euskara jakin “beharra” duela akuilu euskara ikasteko esango nuke. Hona euskara ikasteak merezi al dueneko galderari eman dion erantzuna:

“ Sí, es que es bonito aprender la lengua que es de aquí y que por culpa del Dictador no pude aprender. Me conecta con mis raíces, y además mi mujer y mis hijos son euskaldunes, así que vaya si me merece! “. Ez da antzua bere alaben inguruan egin duen aipamena. Bere alabak familia dira, baina baita gazteak ere. Iñaki korrikalaria da eta astean hirutan entrenatu ohi du herriko atletismo taldekoekin inguruko herri-lasterketak prestatzeko. Afektua baino gaindiezinezko beharra begitantzen da euskara ikasteko motibazioan. Ikusi bestela euskara ikastea gomendatuko zukeen galdetu diodanean eman duen erantzuna: “ Claro que sí, ¿tú sabes lo que es pasarte toda la vida sin entender

mogollón de cosas que pasan a tu alrededor? es la lengua de aquí, y además ya lo habla toda la gente joven ”.

Euskaldun diren jendartean egunerokoan ibiltzen da Iñaki, eta bere kirol ohiturak tarteko hauetako asko bera baino gazteagoak dira. Azken hauetako asko beraien artean euskaraz aritzen direla dirudi, eta Iñaki bera oraindik ez da gai horretarako. Motibazio afektiboa baztertu egingo nuke kasu honetan. Motibazio integratzailea izan daiteke, eta hein batean baita instrumentala ere: euskara izango da bere ustez bere familia zein inguruarekiko bere

*autopertzepzioa aldaraziko dion elementua. Horretarako euskara **behar** du, nahi eta ez.*

Korok ere gomendatuko luke euskara ikastea: “ Kriston apuroa “ espresioa erabili du kalean norbaitekin euskaraz hitz egitean sentitzen duena deskribatzeko. Apuroa estuasuna da, itolarria; eta edonork du estuasun egoera batetik ihes egiteko beharra, ezin gaitzke beti egoera horretan egon, ahitu egingo direlako gure indarrak. Erantzun berean “ lotsa “ hitza ere aipatu du, eta kalean euskaraz gaizki aritzeak (berak euskaraz ondo ez hitzegitea esan du) sentimendu hori pizten dio.

Itolarria eta lotsa, beraz. Afektuarekin uztartu al daitezke sentimendu horiek? Elkarbizi daitezkeelakoan nago, baina benetako afekturik sentí al daiteke oso bestelako sentimenduak eragiten dizkizun zerbatekin? Kasu honetan ere ez dut motibazio afektiborik ikusten, nahiz eta bestelako erantzunak eman dituen. Nire irakasle esperientzian autoengainuaren fenomeno askotan bizi izan dut: ikasle bat gustora datorrela euskaltegira iruditu arren, defenza mekanismo soil bat izan ohi da askotan gainean daraman zama arintzeko. Horretan taldeek asko laguntzen dute eta mezu positiboak sortzen dira urtean zehar. Kororen kasua ere honakoa dela esango nuke. Euskara ikasteak merezi duen ala ez galdetu diodanean zeraerantzun du: “ *Bai, herrian asko hitz egiten da euskaraz eta ez badakizu arazo bat da, ni behintzat ez naiz batzutan eroso sentitzen, zeozer erantzuteko gai ez naizenean.*”

*Lehen ere aipatu dut “ eroso “ sentitze horren inguruko hausnarketa, galderen banakako azterketan. Euskara ez jakitea da arazoa berarentzat. Ez da ñabardura hutsala: erantzun positiboa eman ahal izan du, zentzu honetakoa adibidez: poza ematen behar du gero euskara hutsean egunerokoan aritzeak. Baina berak “ arazoa “ aipatu du. Ezezko esaldia eta ezezko esanahia duen mezua. Zera esango nuke: Kororen kasuan, euskaraz kalean aritzeko berak estimatzen duen gaitasuna lortzen duenean euskararekiko duen arazoa gaindituko duela, baina ez duela ezer **positiborik irabaziko**. Arazo potolo bat*

gainetik kentzean sentitu ohi den askatasun sentsazioa izango du, baina ez du seguraski sentimenduzko balio itzela duen zerbait irabaziko.

Oro har, motibazio instrumentala eta integratzailea dira indartsuenak euskara ikasteko garaian; erantzunen banakako azterketetan argi ikusi da askotan lanerako behar dutelako euskara dabilzala ikasprozesuan eta beste batzuetan aldiz jendartean zein kasuren batean familian bertan integratuago sentitzeko. Motibazio afektiboa ere badago, baina estatistikoki, eta lagin honetan behintzat, aurreko bien atzetik egongo litzateke.

Planteiatu dudan bigarren hipotesia honakoa izan da: euskara inposatu egiten zaiela sentitzen dutela uste dut, inposaketa sentimendua daukatela, alegia. Azken urteetan Buruntzaldean euskararen egoera egonkortu ez ezik hobetu egin da, bai ezagutzari dagokionez eta baita kale erabilerari dagokionez ere.

Honi Administrazio Publiko ezberdinetan lan egiteko Hizkuntza Profil ezberdinen eskakizuna gehitu behar zaio, eta baita bestelako arlo pribatuko lan ezberdinetarako euskara jakiteak eman dezakeen balio gehigarria ere. (lanpostu askotarako ezinbesteko eskakizuna da egun euskara jakitea: zerbitzari, saltzaile edo komertzial lan askotarako, esaterako).

Ez zait egoki iruditu zuzenean euskara inposatu zaien sentsazioa duten ala ez galdetzea, bi arrazoirengatik: Batetik, zuzeneko galdera baiezkoko edo ezezkoko formulazioan egin behar da nahi eta ez, eta galderak berak erantzuna baiezkora edo ezezkora bideratzeko arrisku esanguratsua dakar.

Eta bestetik, posible ikusi dut baten batek “zurikeriaz” jokatzeko, hau da, bere burua “ur-lasterretan” ez sartzeko tentazioa izatea. Horregatik bestela itaundu ditut, Eusko Jaurlaritzak administrazioa euskalduntzeko azken bi hamarkadetan martxan jarri dituen planei buruzko beraien iritzia eskatuz. Zeharkako formulazio honetatik saiatu naiz erantzunak aurkitzen. Gogora ditzadan jasotako hitzez-hitzeko erantzunak:

Antton: “ no creo que la solución sea obligarnos a todos a saber euskera para trabajar en la administración. Y además hacerlo contrarreloj, sin plazos razonables para aprenderlo. Lo importante es hacer bien el trabajo, y el castellano lo entendemos todos “.

Iñaki: *“sí, aquí se habla euskera y claro que hay que exigirlo. Pero tampoco hay que pasarse. Si eres buen médico eres buen médico, con euskera y sin euskera. Habría que animar a aprenderlo pero no obligar, creo yo...”*

Maria: “estoy de acuerdo, pero creo que lo están haciendo a lo bestia, sin que dé tiempo a aprenderlo. Y el trabajo está antes que el euskera, mal que nos pese, pero no se puede echar a la gente por no tener Perfil Lingüístico. “

Silvia: “estoy a favor de que poco a poco en los hospitales se hable euskera, pero no puede ser que un médico siendo mejor que otro se quede fuera de Osakidetza por no tener Perfil Lingüístico. Hay que valorar otras cosas antes del euskera, la capacitación profesional debería ser más importante.”

Ines: “ Orain alde nago, kostatu zaidanarekin bigarren perfilla ateratzea! Baina oso gaizki pasa nuen duela bi urte, oposaketetan. Orain besteek pasa dezatela, nik kostata lortu dut.”

Lucia: “ez zait ondo iruditzen. Denok dakigu erdaraz, eta gaixo baldin bazaude zer nahiago duzu? Mediku on bat edo euskaraz jakin arren hain ona ez den bat? Nik ez daukat dudarik, eta uste dut gehienok berdin pentsatzen dugula...”

Ana: *“Ondo iruditzen zait, euskaldunak gara eta udaletxean euskaraz egin nahi dut. Hemengo hizkuntza euskera da ez? Ba orduan euskeraz hitz egin nahi badut eskubidea daukat. Erdaraz hitz egin nahi duenak baldin badauka, nik ere badaukat euskaraz hitz egiteko”.*

Laura: *“Niri ondo iruditzen zait, baina ez orain bezala. Nik ospitalean lan egiten dut, eta euskarak puntu asko ematen ditu, uste dut gehiegizkoa dela”.*

Koro: “ Ondo iruditzen zait, zertarako ari gara euskara ikasten, gero administrazioan erdaraz hitz egiteko? Nire aitaginarreba euskalduna zen, Oriokoa, eta ez zuen nahi izaten medikura joatea. Oso gaizki pasatzen zuen, gazteleraz oso gutxi zekien eta. Eta hori ez da justoa”.

Miren: “Oso ondo, baina ez dute administrazioa euskaldundu nahi. Kriston jende pilla dago lanean euskaraz hitzik jakin gabe eta ikasteko inongo intentziorik gabe gainera. Politikoeak nahi dutena esango dute, denak dira oso euskaltzaleak, baina ez dute benetako aurrerapausurik eman nahi. Ez da normala Ertzain gazteak egotea euskararik gabe, baina berdin die, argi dago”.

Galderen erantzunen banan-banako azterketan egin dut erantzun hauen hausnarketa berezitua, eta ez dut, beraz, esan dutenari buruz berriro azterketarik egingo. Kasu honetan zer esan duten baino **nola** esan duten baita aztergai.

Gehienek **ezezko eran** erantzun dute, eta galdera **neutroa** izaki, oso datu esanguratsua iruditzen zait. Gogoratu erantzuna ez bideratzeko planteiatu dudala galdera hau horrela egikaritzea eta beraz erantzuna baldintzatua izateko faktoreak asko minimizatu direla. Anttonek “ no creo que la solución sea obligarnos a todos a saber euskera...” esan du. Iñakik alde batetik ondo iruditzen zaiola administrazioa euskalduntzea esan du, eta exijitu egin behar dela esatera ere ausartu da. Baina ondoren honakoa dio: “. *Habría que animar a aprenderlo pero no obligar, creo yo...* “ *Mariaren kasuan ere antzeko zerbait:* ados omen dago administrazioa euskalduntzearekin baina... “, ... pero no se puede echar a la gente por no tener Perfil Lingüístico.

“ Silvia ados dago Ospitaleak pixkanaka-pixkanaka euskalduntzen joatearekin, baina bestelakorik ere badio: “ ... pero no puede ser que un médico siendo mejor que otro se quede fuera de Osakidetza por no tener Perfil Lingüístico... “

“**obligarnos a todos, obligar, no puede ser, no obligar** “ Behin eta berriro errepikatzen diren espresioak dira lau ikasle hauen artean. Euskara ezin dela behartu diote batzuk, eta ezin dela inor kanporatu euskara ez jakiteagatik beste batzuk.

Nik galderan ez dut halakorik aipatu eta lauren erantzunak ildo horretatik doaz. Ea gainontzekoek zer dioten: Ines alde dago, berari behar zuen profila ateratzea asko kostatu zaiola dirudi eta orain besteei tokatzen zaiela dio. Luciari ez zaio ondo iruditzen administrazioa euskalduntzeko Eusko Jaurlaritzak aurrera eraman dituen planak. Anari aldiz ondo iruditzen zaizkio administrazioa euskalduntzeko Planak egikaritzea.

Inesen eta Luciaren kasuan, erantzunak ezberdinak badira ere badagoparalelismorik: Luciak Plan hauen aurka dagoela argi esan du, eta Inesek, hein batean, ere bai; berak asko sufritu du behar zuen Hizkuntza Eskakizuna eskuratzeko, eta orain ez du bere lanean eskuratu duen posizioa galdu nahi. Itxuraz, Hizkuntza Profila lortu izan ez balu, Luciak mantendu duen iritzia inguruan egongo zatekeela dirudi. Hauen bien kasuan, beraz, euskara inposaketa lez ikusten dutela esango nuke, eta Luciaren kasuan egun bolo-bolo dabilen argudio sasi-zientifiko batez lagunduta gainera: sendagile euskalduna ez da nonbait sendagile erdalduna bezain kualifikatua.

Mirenen kasuan argi ikusten da euskara ez duela inposaketa gisa bizi, eta Kororen kasuan ere antzera gertatzen da: bere aitagarrebaren kasua jarri du eredu gisa, inposaketarik balego gazteleraren inposaketa dagoela zeharka aditzera emanez. Bukatzeko, Laura nolabait kontraesanean erori dela dirudi, alde batetik ondo iruditzen zaizkiolako Euskalduntze Plan ezberdinak baina bestalde euskararen pisua gehiegizkoa dela lan-deialdietan esanez. Bata ala bestea izan beharko da; ezin da Euskalduntze Planen alde egon, horrek egunerokoan dakarren guztiarekin (gizarte, politika, administrazio zein

bestelako agenteen inplikazioa) eta ondoren, jarrera horrek dakartzan ondorioak ikusita, (lan-postu zehatz batzuetara iristeko zailtasunak, euskara ikasi beharra epe zehatz batzuen barru kasu askotan,...) Euskalduntze Plan horiei “ mugak “ jarri nahi izatea. Zein izango litzateke Administrazio ezberdinak euskalduntzeko abiadura egokia? Agian nork bere lanpostuan ahalegin berezirik gebe urteetan zehar erdaraz moldatuz egikaritzea ahalmentzen duena?

Bistan denez, Miren, Koro eta Ana salbuetsiz gainontzekoek euskara inposatu egiten zaiela uste dute. Erantzun argiak jasotzea ordea ez da arraza, ezkutuan darama askok sentipen hori. Bete egin da kasu honetan ere elkarrizketa hauek egin aurretik planteiatu dudan hipotesia; ondorengo galdera datorkit burura ondorio hauek eskuratu ondoren: zer nolako Euskara Plangintza eredu egikaritu beharko da datozen urteetan horrelako inposaketa sentsazioak uxatzeko? Orain artekoak goia jo eta irauli egin al da euskararen aurkako sentimenduak eraginez? Nik baietz esango nuke; hamar ikasletik zazpik euskara inposatutako hizkuntza dela uste badu, aldagaien bat berrikusi beharko dela iruditzen zait. Pertsonalki ontzat ematen ditut orain arte euskalgintzan aurrera eramanez diren politikak, baina ziklo berri baten hasieran gaudela iruditzen zait. Euskaltegiak ikasle Profila aldatu egin da azken urteetan eta euskararekiko afektuak kolokan daude egun ikasle askoren artean.

Erraza da ordea arazoa identifikatzea, batez ere arazo horri konponbidea ematearekin alboratzen badugu. Nire ustez, eta nire esperientzian, **giza kalitateak edo giza kalitate gabeziak** indartu edo ahulduko du euskararen pultsua datozen urteetan. Euskalgintzan gabiltzanok erreferente bilakatu behar dugu balizko euskaldun potentzial horien aurrean. Gaur egun oraindik euskara lehen hizkuntza aukera da Euskal Herriko hizkuntza akademia ezberdinetan, baina errealitate ekonomikoak gero eta indar gehiago emango die datozen urteetan hizkuntza indartsuenei, hau da, lanpostu on bat lortzera eramanez

dezaketenez hizkuntzei: alemaniera, ingelesa eta frantsesaren ikasketak goranzko joera dute gurean, eta beren balio erantsia oso erraz saltzen da

Gaur egun enpresa munduko irizpideak sartzea ezinbestekoa dela uste dut. Eta zer da ba euskalgintza azken finean? pertsonak, .energiak, ilusioak eta sinergiak sortzen duen enpresa ertaina da, txikia inguruko beste edozein hizkuntza enpresarekin alboratuz gero. Egungo Marketing printzipio nagusiek **lidergoan** kokatu dute produktu bat saltzeko aldagai garrantzitsuena. Liderrak

sinesgarritasuna behar du, eta lidergoa **moralia izango da, etikoa**, hain zuzen ere. Jarrera eredugarriak behar ditu euskalgintzak nire ustez; irakasle zein tekniko konprometituak, ez bakarrik enpresarekin, bezeroarekin ere bai. Euskaltegiko irakaslea, esaterako, ez da irakasle hutsa izan beharko; lan-orduetatik kanpo kontziente izan beharko da euskaltegitik kanpo ikasleek udako sasoian urtean zehar ikasitakoa praktikan jartzeko dituzten zailtasunekin eta lagundu egin beharko die prozesu horretan. Inplikazio hori izango da sinergia prozesuak sortuko dituen eta bide batez euskararekiko jarrera pixkanaka aldatzera eraman dezakeena. Eta berdin euskalgintzako edozein arlotarako. Ez ditugu torlojuak saltzen, edo autoak konpontzen. Pertsonekin dihardugu eta pertsonen aldagai psikologikoak oso kontuan hartu beharko dira datozen urteetan. Honekin ez dut esan nahi, inola ere ez, Euskalduntze Planak arindu edo “ luzatu “ behar ditugunik. Oso bestera, testuinguru politikoa euskalgintzan beste urrats bat emateko aproposa dela esango nuke; baina eredugarritasuna ardatz hartuta. Banakako pertsona gisa eta euskal kolektibo gisa.

8.-ESKERRAK:

Eskerrik asko zinez elkarriketa hauetan parte hartu duten ikasleei. Elkarriketa hauek egiteko asmoa nuela iragarri nienean interesgarria iruditzen zitzaiela erantzun zidaten askok. Beraien parte-hartzea eskatu nienean ere gehienek segituan eman zidaten baiezkoa.

Urteak dira jada elkar ezagutzen duguna eta bai nik eta bai beraiek badakigu elkarrenganako leialtasun osoz jardungo dugula edozein dela ere egindako jarduna. Gauzak horrela, eta behin hamar lagun hauen parte-hartze konpromezua lortuta, batek baino gehiagok beren zalantza kontatu zidan. Eta singularrean diot, bakarra baitzen: “ eta gure izenak aterako al dira lan horretan? “ ulertzekoa da beraien nolabaiteko ezbaia, nik neuk ere sentsazio bera izango nukeela uste baitut. Azken finean biluztu egin dira sentsiblea suerta daitekeen gai honekin, eta inolako ordainik gabe egin dute gainera. Beraien

izenak izenordainez ordezkatzeko eskatu zidaten, eta beraien elkarrizketarako prestutasunari zor horrela egin dut.

9.-AZKEN HITZA:

Lan hau egiterakoan dokumentazio itzela aurkitu eta eskuratu dudala esango dut, paperezko zein internet bidezko formatuan. Zaila izan da egile batzuen lanak aukeratu eta beste batzuenak aldiz kanpoan uzteko erabakia hartzea. Azkenean ondorioak ateratzeko eraginkorrenak iritzi ditudan egileen lanak eta aipuak hartu ditut aintzat, hori izan dut ipar-orratz. Zera ere esan behar dut: dokumentazio dezente aurkitu dudala egileen iritziez harago sostengu dokumentaturik ez zuena. Ez dut egoki ikusi halakorik aipatzea, (salbuespenen bat izan ezik), inoren iritziak ez baitu nire ustez atzean sostengatuko duen Teoria edo Formulazioak baino gehiago balio. Hori izan da interesatu zaidana, iritziek euskarria izatea, gainontzean ezin baita ezer taxuz argudiatu edo arrazoitu.

Aurreiritziei ere lekurik ez ematen saiatu naiz. Ez naiz nor inoren euskararekiko jarrera egokia den ala ez esateko, eta are gutxiago epaitzeko. Horretarako daude politikari zein politologoak, ni datu batzuk mahai gainean jartzen besterik ez naiz saiatu, eta gehienez ere datu horien irakurketa bat egiten, dokumentazio anitz bat euskarri gisa erabiliz. Hortik aurrerakoak denon

artean egin beharko ditugu; edo euskararen ezagutza eta kale-erabilera bultzatu nahi dugun guztion artean, bederen.

10.- BIBLIOGRAFIA

- Alkorta, J. iruzkindua. www.Ahotsak.com webgunea.
- Amorrotu, E, Idiazabal, I, Barreña, A, Ortega, A. (2009)“ Erdaldunen Euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak “
- (2010). “Hizkuntza jarrerak”. Auñamendi entziklopedia.
- .*Baker, C. (1992) Jarrerak eta Hizkuntzak*

Euskarari buruzko diskurtsoak

- BernakJ.M.” Treballar Actituds Linguístiques”.
- Crystal, D. (2000) La muerte de las Lenguas.
- Deci, E.L. & Ryan, R.M. (2013)
- Espainiako Barne Ministerioa. (2014). “*Europako Legebiltzarrerako Hauteskundeak*”.
- “Euskara Askatasunez “. (2008).
- (2009). “ *Euskera eta gaztelaniaren elkarbizitza Lasarten* “ mintzasaioa.
- Ezkerra, M, Iriartek, I. (1995).” *Soziolinguistika aldizkarian argitaratutako Dossierra*” .
- Gartzia, J. (2004). “*Euskara Komunikatiboa txostena*”.
- Martinez De Luna, I. (2012).”euskaraz bizi nahi dut” hitzaldia, Bergara.
- Euskararekiko motibazio sinbolikoak (1998). Nekane Jausoro Santa Kruz, Iñaki Martinez de Luna Perez de Arriba.
- Martí, F. eta beste (2005) Munduko Hizkuntzei buruzko Txostena
- Odriozola, J.M. www. Gaur8. Info
- Perales, J. (2004).”*Euskara helduaroan ikasteko motibazioa: hainbat gogoeta*”.
- Siguan, M. (2001).” *Bilingüismo y lenguas en contacto*”.Editorial Alianza Ensayo.
- Soziolinguistika Klusterrak (SLK) argitaratu dituen datuen arabera (PDF), (2011) VI.Euskaren erabileraren neurketa.
- Tuson, J. (1996).”*Mal de Llengües. A l'entorn dels prejudicis lingüístics*”.
- Vallerand, R.J. (2012). www.socialpsychology.org “ *Hierarchical Model of Intrinsic and Extrinsic Motivation* “
- www.baleike.com

Euskarari buruzko diskurtsoak

- Yataco, M. (2012). *“Droit et Cultures”*.
- Zarraga, A. *“Hizkuntz Plangintzak eta Euskalduntze-Alfabetatzea, Elkarren Osagarri”*. Bat Soziolinguistika aldizkaria.
- Zuialde Herri Informazioa webgunea. (2012) *“Txillardegi”*-ri elkarrizketa.
- Zupiria, X. (2008). *“Jarrerak”*.